



BASERRI ZARRAK ETA BIZI-LEKU BARRIAK

URTE BARRIA TA EUZKADI

Beste urte bat joan da gure begietatik. Betiko ondatu ta galdu da leiza sakonean.

Eta onela izan da ta izango da gizaldiz-gizaldi.

Esan be esan daroagu: zelan doazan urteak. Eta alan be ametsa da, guzurra. Urteak ez doaz; geu-geu goaz aurrera ta bizkor joan be.

URTE BARRIA! Eskutapen onek galdera eragikor-rrak dagiskuz danoi ta gogoratu-erazi: zelako barriak-albisteak, aldakuntzak ete dakarskuz: pozak eta alaitasunak eta garaipenak ala tristurak eta atsekabeak eta negar-malkoak? Eskutapena dana.

Jaungoikoak muga ipiñi dautse gauza guztiai. Orregait il da ta betiko il be 1984... barriro ez da agertuko... Ezin gogoratu gauzok nasai... kezka ta artegatasuna sortu-erazten dabe; pentsakor jartzen gaitu; ernai, urduri ta artega baiña ta egia al'da? Zelan leiteke gero au?

Urtea joan da ta olantxe bizitza osoa. Izan be gure bizitza orri zimela bezala da... ibaietako urak bezala... lorak bezala... kerizpe bezala... joan dira ta betiko joan be... urteak, illak, asteak, egunak, orduak, minutoak, segundoak, uneak... dana joan da ta betiko... geiago ez etorteko.

Aldiak danak artzen dauz: aberatsak, jakitunak, jakin-geak, joandako aldia; barriro ez da azalduko.

1984 joan da... aiendu da... galdu da... ondatu da... 1985 agertu da... au be joango da... ilko da... bukatutako da... ta betiko. Zenbat il diran urte zarrean mundu osoan! Zenbat Euzkadin bertan!... Egunero illak... alde guztietan... adiskideak... aideak... batzuk ogean... beste batzuk kalean, basoan, itxasoan, espetxean, zigorrez... tiroka... ta tiroz... Zenbat illeta munduan! Euzkadin bertan zenbat!

1985 Zer dakarzu niretzat zure eskutapenetan bilduta? Pozak? Atsekabeak? Bai urte zarrak eta bai urte barriak oldozkor eta pentsakoz jarri bear gindukez kristau lez eta euskeldun lez. Kristau lez eta euskeldun nazan aldetik itaun-galdera au egin bear dausat neure buruari: Zer egin dot urte zarrean? Zer joan dan urtean?

Eta zer egin bear dor urte barrian? Zer asi-barri dodan urtean? Zelan jokatu bear dot Jainkoari buruz eta Euzkadi buruz?

Ainbat jazoera ta gertaera ikusi dira 1984'garren urtean Euzkadin. Danetarikoak. Onak eta txarrak. Pozgarriak, atsegingarriak batzuk. Itunak eta gogaikarriak beste batzuk. Pozgarriak eta atsegingarriak asko dogoz azkeneko urteotan, bost sei urteotan. ZERGA-ITUNA (Concierto Económico) pozgarriena ta atsegingarriena alegia. Euzkal Telebista, Euzkal-Irratia, Ertzaintza, Ikastolak, Ikastetxe Nagusia, Kondaira Lurraldean Mugak, Simon Bolibar Askatzalleari bere aurrekoen errian eta munduko ainbat erritan eta uritan bere jaiotza-Berreungarren Urtebetzea izan dala-ta egin jakozan jai-omenaldiak; Jaurkaritza ta Parlamentua sortzeak.

Gure arerioak gure erriaren ondapenerako asmatu eben LOAPA baztertu ta lurperatzea txikiena ez. Oneik dira bear bada, Euzkadik izan dauazan garaipenik pozgarri ta atsegingarrienak beste batzuen artean.

Baiña jazoera itun eta mazkagarriak be izan dira joandako urteetan Euzkadin. Ona batzuk. LOAPA... zorionez zapaldu ta lurperatu zana LODE... INSALUD... Gizarte-Babesa, Ontzi-Langintza, Terrismoaren Aurkako Legea; diru ta eskubide-aldaketak egiteke iztea; eta abar eta abar.

Gure arerioak, gure arerio politikoak bai irratiz, telebistaz, egunerokoetan, aldizkarietan, itzaldietan, Batzarretan aurrera diardue gure erriaren aurka lege zantar-ankerrak emoten. Eta aurrera jarraituko dabe, asmo au dabe betita.

Euzkadiren aurrerapenik ez dabe gura. Euzkadik aurrera egiterik ez dabe nai. PSOEek sarri ta ondo agertu dau bere belarria. Euzkadi zapaldu, Euzkadi ondatu. Euzkadi sakabantu ta desegin betiko. Asmo zital au dabe. Bere Araudi-Estatutoa lurreratu edo ebagi ta indargetu. Euzkerak burua jasotzea Jaungoikoak nai du-esan eban urte asko dirala Hernaniko seme argi-ospetsua izan zan Aita Kardaberazek. Euzkadik burua jasotea Jaungoikoak nai du diñogu guk euskadunok. Beraz euskotar anai-arrebak-arerioaren asmo zital eta ankerren aurrean: ZUTIK. ERNAI. KEMENTSU. GOGOTSU. ADORETSU. GIZONKI.

Adorea izan eta segi aurrera.

BER-IZKUNTZA (Metalinguismo)

ZER DAN

Bir-izkuntza edo "metalinguismo" izkuntza bera izketarako arazo lez artzea da. Esaterako: "Nekea" itzak zer esan gura dau? Edo, esaldi au jozkera aldetik ondo ete dago?

Zalantzearen edo aztertzearen arazoa da ba au. Mesedegarri ala kaltegarri?

GAURKO ARDUREA

Jokabide onek betiko euskaldunai buruz, kalte aundia ekarri dau: Eurak etxean ikasi daben euskerea txarra dala eta eurak euskerarik ez dakiela sinistra bultz egiten dautse. Eta ori gure izkuntzarentzat kalte izugarria izan daiteke: Betiko euskaldunak, erri-euskaldunak euskerea ez ba'daki, nor da euskerea dakiana? Gramatikako arau bat ondo ala txarto dagoan jakiteko, oraindiño gaur, erriak zelan esaten dauan ikusi bear dogu.

Euskaldun barriak be oso arduratuta ikusten doguz arazo onetan eta sarritan txarto egiteko bildurraz ez dira ausartzen euskeraz egiten (Ba-dira beste batzuk txarto eginda zuzentzeko ardurarik artzen ez dabenak be!). Eta lotsa edo bildur ori kendu barik ezin ikasi daiteke ondo berba egiten.

Euskeran asko sakondu dabenak be euren zalantzak izaten dabez: Ondo esan ete dot? Eta orrelan euskerea bide laban baten antzera, bildurgarri egiten jake.

Eta ori batez be erri-aurrean berba egiten danean. Orduan bai izaten dala txarto berba egiten ete dan ardurea!

KALTEGARRI

Ber-izkuntza ori, errez ikusten da, euskerearentzat, bere neurritik urteten dauanean, kaltegarria dala. Zenbategi jo ete dabe joten erderara, euskera txarto egiten dabelako eta euskerea motza dala uste dabelako!

Eta ondo dakienak eurak be bai, bide laban lez ikusten dabelako.

Gaiñera, gaur, ikastolako umeekandik asita, ber-izkuntza orrek maisukeria ta jauntxukeria sortzen dauz: Zuk ez dakizu euskeraz, ori orrelan ez da esaten!

Eta orra or, betiko euskaldun diran gurasoak kikilduta!

MESEDEGARRI

Ber-izkuntza orrek ba'dauz bere alderdi onak be, batez be bere neurrien barruan erabilite ezkeru.

Erri aurrean eta itzaldietan obeto berba egiñaz, erria ezi egiten dogu eta euskera bera be apaindu.

Izkuntza aztertzeak bere kondaira eta esangura sakona obeto ezagutzera garoaz eta olako azterpenak euskera garbitu, edertu ta egokitu egiten dau.

URTENBIDEA

Ez dagigun aitzu izkuntza, eta gutzat euskerea, alkar ulertzeko dala lenengo eta gero tresna ori egokiro erabilteko. Orduan, lenengo berba egin dagigun parra-parra ondo ala txarto dagoan larregi arduratu barik, berbea datorren moduan, eta, noizean bein zuzentzea ondo dagoala onartu arren, geiegi ez dagigun egin zuzentze-lan ori, iñor kikildu ez daiten.

Ondo dago erri-aurrean berba egiten danean, batez be irratan, urrutikuskiñean eta idazterakoan euskera apaiña-goa erabiltea.

Arazo ori batez be kontuan artu bear da, beste euskalki batzutan berba egiten dabiltezanakaz gagozanean: Orduan euskera apaiña egiten ba'dogu errez ulertuko dauskue, eta bardin eurena geuk be.

Baiña beti izan dagigun ardura aundi bat, txarto berba egiten dauala esan dautsogulako iñor kikildu ez daiten eta, txarrago litzakena, erderara jo ez dagien. Onetan frantzesak eredugarri jakuz. Eurak beti esaten dauskue guk frantzes ondo berba egiten dogula. Ez dakigu gero euren artean zer esango daben, gu aurrean ez gagozanean.

KALEDONI BERRIA

Askatasunaren billa dabil, Polinesi'ko ugarte txiki bat dan Kaledoni Berria. Lur polita eta aski aberatsa meatzez, nekazaritzaz, eta aberez.

Euskadi'k bezela 19.000 kilometro laukoi dauz, baiñan Euskadi'k baiño askoz biztanle gutxiago: 140.000 besterik ez.

Polinesi'ko beste millaka ugartetxoan antzera Pazifik Itxas Nagusiaren erdian galdurik dago; Australi'tik 1.500 kilometrora. Frantzi'ko Probintzi bat da orain dala 130 urtez gero, naiz Paris'tik 19.000 kilometrora, ludiaren beste alderdian egon.

* * *

XVIII mendean, 1774'ean, James Cook itsas-gizon ospetsuak aurkitu eban ugarte au, eta berak eman eutsan izena ere: Kaledoni Berria, Inghlanderri eta Eskozi'ko mugaren bi aldetako lurralde zelaiaeren omenez. ("Kaledoni", lurralde ari antziñate zârrean, erromatarrek ipiñi eutsoen izena bait da).

Gero, Kaledoni Berrira lenen iritxi ziran gizakume zuriak, mixiolariak izan ziran. Frantzi'tik joandako mixiolariak; 1.843'ean.

Kristoren Berri Ona zabaltzera joan ziran mixiolari aiek. Baiña laister iritxi ziran arâ beste frantziar batzuek ere, asmo zikiñagoarekin. 1853'garren urtea zan. Eta, urte ortan bertan, beretzat artu eban Frantzi'k ugarte atsegiñ ura; bertako biztanleei iritzirik eskatu gabe, jakiña. Ori izan bait da Españi, Frantzi, Inghlanderri, Errusi, eta beste lur-lapurtzaille guztien legea: edozein lapur aundi edo txikiren legea: indarkeria eta gaiztakeria.

Oso gaizki portatu da gaiñera Frantzi Ozeani'ko ugarte artan. Ego-Afrika'ko beltzak baiño okerrago, milla aldiz okerrago, bizi izan dira, eta bizi dira oraindik, ugarte artako seme-alabak Frantzi zipotzaren mendean.

Kaledoni Berriko biztanleak, "**kanak**" esaten zaien gizon-emakumeak ziran, —eta dira—. Endaz, malaiatarrak; izakeraz, paketsuak, naiz gaur munduaren aurrean oso borrokalaria agertzen asi, askatasuna nai dabelako. Frantzi'ko Jaurlaritzak aginduta dauka, ugarteari askatasuna emango dautsola egitera doan auteskundeetan, ango biztanleek ori eskatzen ba'dabe, baiña agindu orrek ez dautse "kanakei" batere atsegiñik egiten. Zergaitik ote?

* * *

Zergaitik ote? Frantzi jabe egin zan ezkerro, Kaledoni Berrian gauza asko gertatu diralako! 140.000 esan dogu dirala ango biztanleak. Baiña oietatik 60.000 bakarrik dira

"kanakak". Besteak, danak, atzerritarrek dira: 55.000, frantziarrak, kolonizazailleak, bertako lurren eta negozio edo aberaspide guztien jabeak. Eta 30.000 Indotxina'tik eta Polinesi'ko beste ugarteetatik frantziarrek ara lanerako azkeneko eun urte auetan eramandako langille merkeak. Frantzitarren alde dagoz, oraingoz, auek danak.

Gutxiengo edo minori txiki bat besterik ez dira, beraz, gaur egiazko kaledonitarrak: "kanakak".

Auteskundeei uko eginda, tiroka asi dira, askatasunaren billa "kanaka" gaixoak. Ori ote da bidea? Frantziarrek ere, tiroka erantzun bait dautsoe; eta auen atzetik Frantzi'ko Jaurlaritza osoa bait dago bere indar guztiarekin.

* * *

Ikaskizun egokia da Euskadi'rentzat Kaledoni Berria. Eman ere, naiz euskotarrok aiña izan ez, asko bait dira atzerritarrek, eta oien atzetik Españi'ko Jaurlaritza bait dago bere indar guztiarekin.

Iñork ez dautse atzerritar oiei, —beren errietan goseak amorratzen zeuden-ta—, onera etorri izateko esku-biderik ukatzen. Baiña arazo larria sortu dauskue guri, Lazkao-Txiki'k edorto abestu eban lez. Entzun noiz eta nola:

1960. Zizurkill'en jaiak. Puntu-jartzailleak eman dautso puntua Lazkao-Txiki'ri eta onek, maiz oi daun lez, puntu-jartzailleari ziria sartuaz erantzuten dautso. "Gero arrapatuko zaitut" pentsatzen dau arek, eta urrengoan, ez bururik ez ankarik ez daun puntu bat ipintzen dautso:

"Extremadura dira
Kazeres, Badajoz".

Lilluraturik gelditzen da Lazkao-Txiki; lilluraturik entzuleak, bertsolariak nola aurrera atera jakingo ez dabelaren bildurrez; baiña, berealaxe agertzen yako irriparra ezpainetan ari eta, puntua bir-esanaz onela jarraitzen dau:

"Extremadura dira
Kazeres, Badajoz?
Ez dakit joango diran
majiñat badatoz.
Danok anaiek gera
ez nabil gorrotoz;
Etorri ez balira
obe gendun askoz".

Baiñan emen dagoz! Ta oiek euskotartu gabe, zentzuzko gauza al da "autodeterminazioa" eskatzea?

LATIEGI'tar BIXENTE

URTE AZKENA

Lerro oneik idatziten gagozan une onetan oraindik egun batzuk bear doguz udazkena, udagoiena amaitzeko. Abenduan sartuta aurkitzen geran ezketiño izadia lotan letz ikusiten dogu. Zer edo zergaitik Sabin Irakasleak illa oneri, ondo sakonduta gero, Lotazilla izena jarri eutsan. Bearbada lugintzan zeregiñik gitxien dagon aldia izanik, baiña, geien bat izadia eguzki-iparraldian lozorroan dagoaleko negua asieratik amaitu arte. Ori da geien bat Sabin izen ori ipinteko bultzatu ebana.

Ez izadia bakarrik geu gizakiok, notiñok be pizka bat geldotu lez geratzen gara, batez be eguraldia aldi onetan sarritan txarra izaten dan ezketiño, berak lagunduta. Bai-ta pizkabat baiño geiago ea amaitu aiñean dogun urte-barruan zerbait baiño geiago azpeltuak garalako, gure inguruan oartzen doguzan lan-ezak, lan-oporrak, iñon dira ixkanbilla, lapurketak, eraiketak eta alkar-ulertu ezin luzeak, Orixegaitik edo, danok edo geienok egoten gera urteari lenbailen amaiera emoteko pozean eta, urrengoari adi ea zer obarik dakarskun ikusi-naian.

Ondo egongo litzake orraitino astitsu gagozan urte-azkenengo illetan, azterketa sakon bat bakoitzak bere barrenean egitea, ea igaro dogun urte orretan zer egin dogun urte ori izan dan baiño ohea izateko. Bada, Izadia'ren goraberatan gizon-emakumeok zer-ikusirik ez badogu be, ba-dogu beste gauza askotan errurik asko, ez garalako bear genduken beste obeagoak izaten, geure eginkizun guztietan.

(J. L.) laster sartuko gera Urte-Barri'an, 1985'an. jakiña! ez dakigu zer barririk ekarriko daukun, baiña, geure aldetik ezertariko oberantzarik nabaritu dogu? Ez? Orduan, irabazi ez dogun zer ekartea nai dogu?

Orain-arte idatzi dogun guztia, edo geiena, gure Aberria'taz esan geinke. Aberri bat dogu, bear bada Alguztidunak ludia egin ebanetik asita geure-geurea dana, ziurki gure arbasoak bertan azke bizi izan diralako eta beraz bere burujabe bakarrak garalako. Lurralde ori, danok dakigun lez, Euskalerrria lez ezagutzen zan bertako seme-alaba guztiak euzkera utsean ulertutzen ziralako.

Geroago, Sabin Irakasleak, Euzkadi izen gozoa sortu eban, ordurako euzkotar asko, tamalez geiegi, etziralako euzkaldunak, batzuk euzkera euzkotarron izkuntza galdu, aztu ta beste asko etziralako alegindu ikasten. Orduan, gure ustez, Euzkadi (Euzkodi) egokiago dago gaur-egunean, euzko-alkartea edo gaztelerazko "conjunto de vascos edo euzkos" esan nai daualako. Euzkadi ori, baiña, bai-ta danok dakigun lez, bera baiño askotaz aundiago ta zitalago diran laterri bik zatituta, erbituta eta euren lege azkatasun gabea menpean dabe, nai-ta itz asko egiten dan laterri orreitan giza-diaren eskubide jatorrak diralata. Jakiña! itzak bakarrik.

Zer egin bear dogu edo zer egin geinke euzko seme-alabok geure Aberri ori beren burujabetzan jartzeko?, Lenen seme zintzo batek beren ama kutuna lokarritz loturik ikusi ondoren egingo leukena; lokarri orreik trizkatu ta errudunai aurre emonaz erakutsiten emon, naita beren bizia arriskuan ipiñi, ama orrek eskubidea dauala iñork ipiñitako lokarri barik biziteko.

Orretarako baiña, ez da ama kutuna azkatzea edo gaizkatzen ibiltea bakarrik naikoa. Banaka igiten diran eginkizunak erkin geratzen dira geienetan, geien bat euzkotarron batasuna lortutzen alegindu bear gera, adierazoten emonaz euzko anai guztieri geure egiñenakaz, Euzkadi euzkaldun, jakintsu, baketsu ta lantsu bat izango litzakela euzkotarrok zorientsu egingo gendukezan Aberria.

Orretarako, baiña, Lotazil au izan bear da aldi egoki bat kistar-zaleok ain maite doguzan Gabon-jaiak bear diran lez goraldiaz batera erabagi zindo bat artzeko aldia. Geure barrenetik eta biotz guztiaz zin egiteko, danetara ta bizi geran arte Aberria'ren azkatasun ta beraz beren zorian jarraitzeko. Orixe da urren asiko dan Urte-barriri egin geuskigon eskintzarik egokiena.

Abertzaleak garala diñogun euzkotarrok bakarrik orixe egingo ba'gendu, laster izango litzake bear bada Euzkadi zorientsu.

ALTUNA'TAR JOSU

SAN BIXENTE BEDIAGA'KO BASELIZA'REN EDESTIA

Edestia edo kondaira-istoria izatez izan be izadigzadiaren irakaskintza bizia da.

Gure "Zer" aldizkari erritarrean edesti-gaiak idaztea beti atsegin izan yat.

Eta nok eztaki lengo aldietan erlejiñoaren agerkariak zireala agirienak eta garrantzitsuenak?

Ona emen naukozue ba gurariz beterik eta eleizak eta bazelizak egiteko eragiten eben erlejiñozko sentikerak azaldutera natorkizue.

* * *

Orozko'ko baselizen edestia egiteko gogoia neukan. Baiña non aurkitu zertzelada argibideak? Salamanka uriko Teoloji irakaslea eta oraingo teologuen artean entzute-suenetariko dan Pikaza'tar Xabier'en osabeak, orain bere andreagaz ta alabeagaz Algorta'n bizi danak emongo eustazau. Ori agindu edo eskeindu eustan.

Bitartean, emen Zornotza'n bizi naz eta emen badaukogu neka ezin billakari bat baselizai dagokiezan edesti-agiriak, daukozana nire lagun en Amorebieta'ko Julian Etxebarria.

Onk emoten daustazan argibideakaz "Lauaxeta" ikastola Nagusiaren inguruetako Baselizen edestia egingo dautsuet.

* * *

Bediaga'ko San Bizente Baselizaren edestiagaz asiko gara.

Orain arte antxinako baseliza onen barririk, ez inguruekoenik be ezda azautsen eta.

Alan be, Bizkai'ko Jauneria'ren Foru Aldundegi'ko agiritegia erabilliz eta esan dogun Julian Etxebarria'k emoniko argibideaz Baselina onen kondaira labor bat emongo deusuet, agerkai, egille, idazti, txatal nundik argitasunak atera al izan diran aitamena egiñez.

Lenengo aitamena Baseliza oneri buruz Amorebieta'ko Santa Maria'ren parroki liburutetan agertzen da; eta euren argibideak edestirako izanez jarraian zeaztuko doguz era osoaz, 1.580 urtean berton ospaturiko eskontza baten barriagaz asita.

Amorebieta'ko eleizaldean dagoan "Bedia'ko San Bizente baselizan, urtarrillaren ogeta bostgarren egunean mille besteun eta laurogei'ko urtean, ni Leginaetxe'tar Joan Abbad, eleiz-gizon ta Meza-gizon Baseliza onen opidedun eta Eleiz nagusiko abadien lagun nazan onk, Tridento'ko Batzar nagusi doneak aginduten dauazan lau agertzeak, ango eleizako abade eta Dudea tokikoa dan baimenaz Igarguen'tar Pedro Abbadaren emon neutsozan

eskontza bedeinka onepenak Iburguen'tar Arkotxa'ko Pedro'ri tan orain bere andrea dan Arkotxa'tar Mari Andresa'ri, ango eleizalde auzokideak, Iburguen'tar Matheo ta Cabala'tar Marina ango eleizaldeko auzokideak, euren aitabitxi ta amabitxi izanez, eta etzeliar ikusle, neu ta len esanak ango eleizako opidedun Rementeria'tar Abbad, martin eta beste batzuk, eta aurrezko ikusle lez nik emon neban izena ta olantxe izenpetu eban nigaz batera esandako abade Iburguen'tar Pedro Abbad'ek".

Aitatu egin bear dogu gordeten diran parroki-liburuak 1566 urtetik asita zarrenetarikoak dirala kontu liburuak 1771 urtetik asita baiño ez dira gordeten eta liburu orreixek beste toki edo Eleiz Nagusietan Baselizari buruz argibide askoz geiago emoten dabela.

Eleiz-Nagusi edo Parrokiko agiritegien utsune au beteteko alegiñak egin doguz, ikustatu azterketan Zornotza eskualdean idazkariak egiten ebazan agiri sortak, baita Bizkai'ko agiri-sorten kondaira-agiritegiak baita Gernika'ko Batzar Etxean archiboratzen diran askotariko agiri gaietan, edo idaz-alkate-gelako agirien artean, etabar...

Amorebieta'ko auzokide zan Leguinaetxe idazkariak, baieztu ebazan azken-nai batzuk 1586'tik gizaldiaren azkenera eta urrengo amarraldi bi artean egin ebazanek agertzen dira bere agerkai-sortan.

Adibidez, San Bizente'ren Baseliza baselizen izen lerroetan aitatzen da azken nai egille alde Mezak atera daitezala aginduz eta diño: "Kubietar'tar Pedro'ren azken-naia, jorrailla'k 18,1610 gn. artean: esan begiez nire ari-mearen alde sei Meza isil Eleguezabal'ko Santiago'n bat, Belastegui'ko San Andres'en beste bat, Sarazua'ko San Pedro'n beste bat, *Bediaga'ko San Bizente'n bi*, Ibarra'ko San Lorentzo'n bi, Ofrendo'ko San Juan'en bi...".

Ba-dagoz beste baselizak aitatzen dabezan azken-naiak Bediaga'ko San Bizente apaitu barik, 1615'ko jorrailla'ean egin zan baten lez. Emengo azken-naian oartzten da Dudea'ko San Miguel'en, eta Dudea'ko Anaidian dagozan baseliza guztietan esan daitezala Mezak.

Ikuspegi onetan, edo berau nolanai apaituaz idazkari onen ta besteen aurrean egindako azken-naiak agertzen dira amazpigarren gizaldiko bost egunetan.

Ildako-en atalean 1612n. urtean ustekabe arrigarri bat agertzen jaku: begiratu aldi aretan zenbat baseliza. Bere onuraz dala-ta, atal garrantzitsuena birregiten dogu jarraian:

"Bagillaren 2n. Jaunaren egunean il zan Juan Ochoa Dudagoitia'ko Abadea 64 urtekoa zala. Berrogetamar Meza egin-erazi ebazan Eleiza Nagusian, eta Eleiza-alde onetako baseliza danetan bakoitxan Meza isil bat... idazkiak jarraituten dau... Eleiz-aldeko baselizak amasei dira, olan amasei Meza."

LETONA'k

SANTU ETA DOATSU EUSKALDUNAK

Irailak 2.

DARDAN FRANTZISKO, DOATSUA, ABADEA

Be-Naparroa'ko Izturitz errian jaio zan, 1.733n. urtean.

Baserritarren semea izanik, gaztetan soloko lanetan ekin bear.

Larresore'ko abadegai ikastetxean ikasketak amaitu ondoren, Meza Barria bertan emon eban, eta jarraian amar urtetan etxe aretan abadegaien irakasle izan zan.

Geroago Paris'era dei egin eutsoen Santa Barbara ikastetxean irakasle izateko. Frantzia'ko Matxinada Nagusia etorri zanean, Paris'ko gobernu laikoak ango eleiz-gizon guztiak "Zismatiko Ziña" dalakoa izenpetzera beartu gura izan zituan.

Zin ori ez onartzeagaitik eundaka eleiz-gizon espetxe-ratuak izan ziran, baita Dardan Frantzisko bere.

1792n. urtean beste berreun gotzain, abade, lekaide eta kristiñau erritarrekin batean, espetxean bertan martiritza gogorra jasan eban.

Amaikagarren Pio Aita Santuak talde osoa doatsuen artera jaso eban 1926n. urtean.

Irailak 13.

ZUMARRAGA'TAR TOMAS DOATSU, MARTIRIA

Gasteiz'en jaio zen 1577n. urtean. Domingo Santua-ren Ordenean gazterik sartu zan. Meza barria emon ondoren Japonia-ko mixiño lurraldera joatea eskatu eban, baita lortu be.

Katusma, Kosigi ugartea, Figen'go erreñua, Miako, eta Japonia'ko uriburua izan ziran Zumarraga Aitak Barri Ona zabaltzen ibilli zituan lurraldeak.

Agintarien aldetik pertsekuziño gogorra jasaten eban orduan Japonia'ko kristiñauak.

Bost urte luze egin ebazan Frantzisko Zumarraga'k Omura'ko espetxean. Azkenez bizirik erreta martiritzako abar ederra lortu eban, beste iru lagunekin batera. 45 urte zituan.

Urriak 3.

LEIRE'KO BIRILA ABATA SANTUA

Milla aldiz entzun dogu Birila eta Txoriaren ele-zarra.

300 urte emon ebazala aspertu barik Birila lekaideak Leire'ko iturrian txori baten abestiak entzuten...

Elezar ori ez da guztiz egia izango, baiña Birila Leire komentuko Abata izan zala bai, eta gaiñera santua.

Leire ondoko Tiermas erritxoan jaioa, uste danez, amargarren gizaldian bizi izan zan, Naparroa'ko lekaide-txerik ospetsuenean.

1011n. urtean Naparroa'ko errege Santxo Andiak arrazoi au emoten dau Funes'ko erria moroen menpetik

askatzeko: "Birila Abataren azurrak an dagozala gordeta, eta moroen eskuetatik kendu gura dituala".

Oraintsura arte Santu onen azurrak Iruña'ko katedralen zainduak izan dira. Gaur, bera bizi izan zan Leire'ko komentuan, bear danez gordeta dagoz.

Urriak 22.

NUNILO ETA ALODIA, AIZTAK, NESKATXA MARTIRI SANTUAK

Hueska-aldeko erritxo batean jaio ziran. Euren aita biotzez kristiñaua zan, baiña itxuraz maomatarra. Ama, ostera, benetako Kristoren jarraitzailea.

Bigarren Abderraman erregearen aldiaren Hueskan Kristoren fedea autortzeagatik, martirio latza eroan eban, 851n. urtean.

Biak gazteak ziran: Nunilo 18 urtekoa, eta Alodia 14 urtekoa.

Nafarroa'ko sartaldean santu bi onein jaiera asko dago zabalduta.


Bien azurrak, kofre eder batean, Leire'ko monasterioan zaintzen dira.

Azillak 28 eta 29.

NIMES'KO HONESTO ABATA SANTUA, ETA SAN SATURNINO GOTZAIN MARTIRIA

Santu bi onein bizitzak alkar lotuta dagoz.

Saturnino gotzaiña, eta Honesto abata, Franzia'ko Tolosa'tik Iruña'ra etorri ziran, euskaldunen artean Kristoren barri ona zabaltzera. Antziñako elezar bateri sinisten badeutsagu, San Saturninok Iruña'n lenengo bateatu eban euskalduna Firmo, gizon ospetsua, izan ei zan. Eta Firmo'ren semea Fermin, izan zan Iruña'ko lenengo gotzaiña. Saturnino gure artean beste izen ezberdiñaz be eza-gutzen da: San Zernin, eta Jaundone Satordi. San Fermin Iruñako zaindari ospetsua da.



**ZIDARREZKO EZTEGUAK
(Larra'n)****POZEZ ETA OMENEZ**

Aurten pozarren gagoz. Ospakizun berezi bat ospatu dogu: Larra'ko Olerti-Egunaren 25n. urteurrena. Benetan gure biotz-barruan benetako zirarra unkiarra nabaritu-azo dausku.

Igaz erabagi zan legez, aurtendik asita, Kristo Errege-aren aurreko domekan izango da gure olerkari-jai anaikor au.

Urteak dira bai, Franco'ren denporaldi illunetan, olerkari sentipenai arnasa ta bultzadea emoteko, Aita Onaindiak guda ondorengo erasoaldiak epeldu ziranean, adoretu ta baikor erabagi ebala euskal biotzetan isillean egozan biozkada ta barru-miñak agertzeko orduko olerkari dei alaikorra egiñaz Larra'ko Karmeldarren Lekaide-xean egun pozkorra egitea.

Ordutik ona Larrán, urteak zear ospatu doguz omenaldi nabarmenak. Bertan alkatu gara anaikor Bizkai'tarrak, giputzak eta nappar banaka batzuk eta bizi diran naiz betiraunera joan jakuzan olerkari ospetsuen goratzarreak agertu doguz: Lauaxeta, Guatemala'n irakasle izan neban Zaitegi, eta irakasle ta betiko eragille dogun Aita Onaindia.

Olerki-jaiak darrai eta jarraituko dau eta beste batzuk izan dira ta izango dira goraiatuak. Aurten esaterako Aita Bonipagi Ataun-darra.

Aita Santi'k esku onetan itziko dau jarraipena, Aroste-gi'tar Luis aitaren babespean.

Jauna lagun, "urrezko ezteguak", gazte barrien kemen eta bizitasunaz idarbarrituta ikusten doguz, euskal olertia benetako "urre-aro"-ra eldu daiten.

AURTENGO GIROA

Bernaola'tar Jerardo eta Euskaltzaindikoa dan Eskiaga'tar Eusebio lagun genduzala eldu giñan Larra'ra goiz-erdi inguruan urtenda.

Larra'n lagun-mordo ederra batu giñan eta Aita Santi'ren agurra entzun genduan lenengo, amaika ta erdietan euskal kutsuz beteriko mezea eta, azkenerantza ezpata-dantza ederrez ornidu. Asieran Bernaola jaunak bere bertsolari-ekiñaldia egin eban, aurreko urteetan lez, ogei ta bost urte oneitan ta diranak gogoratuz. Aita Santi izan zan meza orretan mai-buruko eta aita Aroztegi oartzaille ta irakurle. Azkenean AGUR JAUNAK biotz beroz.

OLERTI-BATZARRA

Olerti-batzarra Lekaidetxean bertan izan da aurten eta antxe izan dira salgai aita Santi'ren liburuak eta nik EUSKERAZALEAK argiratu daben Egutegia emon neban duan.

Aita Txanton, gaiso-aldiak itzi ez eutsolako ez jaku etorri aurten, baiña bere GERNIKA'KO ARBOLA antzerkia an izan zan, Josu Altuna Galdakao'tar idazle ugarriak saltzeko ardurea artuta.

Batzarrean Aita Santi Onaindia'gaz batera orain urte bi lirika-saillean lenengo saria irabazi eban Zubiri'tar Iñaki eta igaz irabazle izan zan Erkiaga'tar Eusebio jauna izan ziran. Oneik izan dira epaile, aita Aroztegi lagun dabela.

SARIAK

Lenengo sari-banatzea ta sarituen lanik ederrenak irakurtea egin zan eta gero Aita Bonipagi'ren omenaldia.

Lan aurkeztuak, beti lez, asko ta mamintsuak izan dira.

Lirika-arloan Bidaguren'dar Anjel J.^a bere EMAZTE MAITE olerti sentikor biziagaz. Berak irakurri eban osorik olerki liriku au eta beste soneto bi be aurkeztu ebazan: BIZIA eta ERIO.

Solozabal'dar Paulin'en barru-miñezko iru lan aurkeztu eta aipamena irabazi eban.

Poema-saillean Muniategi'tar Sabin izan genduan irabazle ITZALPE lanagaz eta beronegaz batera URRE EZTAIAK lanagaz Martin Ugarte. Agustin Beloki'rentzat aipamena, ITOXINEK TANTANAKA lanagaz.

Bertso-saillean Jose Mari Azpiri txapeldun EUSKEREARI bertsoakaz.

OMENALDIA

Ataun'dar Bonipagi Kaputxinoa omendu dogu aurten. Aita Santi'k agertu eban bere giza-neurria gizon, idazle ta olerkari lez eta Aita Aroztegi'k irakurri eban bere idaz-lan bat.

Datorren urterako, ARRESE-BEITIA otxandiotarra aukeratu dogu omentzeko.

Iñaki Zubiri'k, diruaren orde plaka oroigarria emoteko eritxia agertu eban, Aldundiak ordaindua izan ezkerro obeto.

Belendin Apraiz'ek lan ederra irakurri eban, benetako olerkariak zeintzuk diran adierazoz. Lan au argitaratuko dala esan dan Aita Santi'k.

Azkenez, egunari begira, beste aldakuntza bat: Antxiña lez, urrillaren 2n. igandean izango da gure jai-aldi au.

Gero bazkaria betiko lekuan, ez ain egokiro gutariko ez diran jentetza aundia egoalako.

ARREGI'TAR JOSU'K

3. ITSAS-ABEREA (Alkartasun Barria)

Animal marino (Santiago, 3, 7)

Toda clase de fieras, aves, reptiles y *animales marinos* pueden ser domados y de hecho han sido domados por el hombre.

Lei: Ezen bestién, eta xorién, eta sugén, eta *itsassoko natura* guzia hetzen da, eta hezi izan da natura humanoaz.

Duv: Gizonak ezen, basabere, hegastin, zierpe eta diren bertze guziak hezten ditu eta eziak daduzka.

Ol: Edozein izakera, basabere ta egaztiena, narrazti ta *arrayena*, giza-igurdiziak ezten ta ezita eukitzen ba-daki.

E-B: Guztietariko pizti, egazti, narrazti ta *itsas-abereak* ezi daitekezenak dira, eta gizonak ezi egin dauz.

Monstruo marino (Mateo 12, 40)

Porque de la misma manera que Jonás estuvo en el vientre del *monstruo marino* tres días y tres noches...

Lei: Ezen hala nola Ionas *balenaren* sabelean hirur egun eta hirur gau izan baitzen...

Duv: Ezen nola *balearen* sabelean hirur gau-egunetz izatu baita Jonas...

Ol: Izan ere, Yona *arrayaren* sabelean itu egun eta iru gau egon zan bezela...

E-B: Izan be, Jonas iru egun eta iru gau *arraiñaren* sabelean egon zanez...

Pez, pescado (Mateo 14, 17)

No tenemos aquí más que cinco panes y dos *peces*.

Lei: Eztiagu hemen borz ogi eta bi *arrain*.

Duv: *Ez dugu hemen bost ogi eta bi arrain* baizik.

Ol: Ez dugu emen bost ogi ta *arrai* bi baizik.

E-B: Bost ogi ta *arrain* bi baiño es daukaguz emen.

NARRAZTIAK

Reptil (Apostoluen Egiñak 11, 6)

Y vi en él cuadrúpedos de la tierra, las bestias, los *reptiles* y las aves del cielo.

Lei: Eta ikus nezan lurreko animal laur oindunetarik, eta bassa bestietarik, eta *herrestez dabilzane*tarik, eta zeruko xorietatik.

Duv: Eta ikhusi nituen lau hatzeko aziendak, eta lurreko basabereak, eta *zierpeak* eta zeruko hegastinak.

Ol: Ta lurreko lauroin, iize ta *narraztiak*, eta ortziko egaztiak ikusi nituen an.

E-B: Lurreko lau-oiñeko abere, pizti ta *narrastiak*, eta ortziko (zeruko) egaztiak ikusi nebazan an.

Aspid (Erroma'koai 3, 13)

Veneno de *áspides* bajo sus labios.

Lei: Suge *aspik*-aren pozoina da hayén ezpainetan.

Duv: *azpikaren* phozoina dute ezpain-pean.

Ol: Ayen ezpañetan *suge*-edena.

E-B: Euren ezpan-barruak *suge*-edena dabe.

Serpiente (Mateo 10, 16)

Sed, pues, prudentes como *serpientes*.

Lei: *Zarete, bada, zuhur* sugeak bezala.

Duv: Izan zaitezte beraz, zuhur *sugea* bezala.

Ol: *Sugeak* bezain gurbil izan zaitezte.

E-B: Sugeak baizen zuurrak izan zaitezte.

Culebra (Lukas 11, 11)

¿En lugar de un pez le da una *culebra*?

Lei: Ala arrainaren lekuan surge bat emanen othe dio *sugea*?

Duv: Edo arraina galdegiten badu, emanen the dio *sugea*?

Ol: Edo arraya ba'daskayo, arrai orde *suge* bat ote-damayo?

E-B: (Nor da zuen artean...) edo-ta, arrain bat eskatzen ba'dautso, arraiñaren orde *suge* bat emongo dautsanik?

Víbora (Mateo 23, 33)

(Mateo 23, 33)

Serpientes, raza de *víboras*!

Lei: Sugeák, *bipera* kasták.

Duv: Suge, *bipera* odolekoak.

Ol: Suge ta *ziraunkumeok*!

E-B: Sugeok, *larra-sugekumeok*!

Dragón (Agerpena 12, 9)

El gran *Dragón*, la Serpiente antigua...

Lei: Dragoin handia, suge zahar hura, Deabru eta Satan deitzen dena...

Duv: *Erainsuge* handi hura, suge zaharra, deabrua eta satan deitzen dena...

Ol: *iransugetzarra*, Txerren edo Satan deritzan aspaldiko suge ua...

E-B: Eta *iransuge* aundia, Txerren edo Satanas deritzan aspaldiko sugea...

3. OSTERANTZEKO ABEREA

Escorpión (Lukas 11, 12)

O, si pide un huevo, le da un *escorpión*?

Lei: Edo baldin arraultze baten eska badali, ala *skorpion*a emanen drauka?

Duv: Edo arroltzearen galdea badu, *harrobia* ote-damayo?

Ol: Edo arraultza ba'daskayo, *arrubi* bat ote-damayo?

E-B: (Nor da zuen artean...) edo-ta, arrautza bat eskatzen ba'dautso, *lupu* bat emongo dautsanik?

Rana (Agerpena 16, 13)

Vi que... salian tres espíritus inmundos como *ranas*.

Lei: Eta ikus nitzan ilkiten... hirur spiritu satsu *igelen* irudikorik.

Duv: Atheratzen ikhusi nituen hirur izpiritu lohi *igelen* idurian.

Ol: *Igel*-antzeko iru ats satsu irteten ikusi nitun.

E-B: *Ugario* antzeko iru espíritu zikin urteten ikusi nebazan.

Langosta (de monte) (Mateo 3, 4)

Y su comida eran *langostas* y miel silvestre.

Lei: Eta haren biandá zen *othiz* eta bassa eztiz.

Duv: Aldiz haren janaharia zen *xartalaz* eta oihenetako eztiz.

Ol: Aren yanaria, berriz, *ottak* eta baseztia ziran.

E-B: Eta aren janaria *matxingorri*goak eta baso-ertzia ziran.

Polilla (Santiago 5, 2)

Vuestros vestidos están comidos por la *polilla*.

Lei: Zuen abillamenduak *zerrenez* betheak dirade.

Duv: *biphiek* jan dituzte zuen aldagarriak.

Ol: *sitsak* yota daude zuen yazkiak.

E-B: zuen jantziak *sitsak* janda dagoz.

Gusano (Apostoluen Egiñak 12, 23)

Y convertido en pasto de *gusanos* (Herodes), expiró.

Lei: Eta *harabarturik* hil zedin.

Duv: Eta *harrek* iretsia hil izan zen.

Ol: Ta *arrek* irentsita il zan.

E-B: Eta *arrek* janda il zan.

Mosquito (Mateo 23, 24)

Guías ciegos, que coláis el *mosquito* y os tragáis el camello!

Lei: Gidariitsuak, *eltzoa* irazten duzue, eta kamelua iresten.

Duv: Buruzagiitsuak, *eltzoa* iragazten eta kamelua iresten duzuenak.

Il: Bide-erakusleitsuok, eltxoa iragazi ta gamelua iresten duzutenok!

E-B: Bide-erakusleitsuok!, edariak iraztean *eltxo*a artu ta ganbelua iruntsiten dozuenok!

KEREXETA

ARPIDETZEKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... 'tar

..... kalean (auzoan) zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetzea ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordaintzeko

txartela, an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ERETXI OKERRAK

Euskal-literaturaren barri-emoille batek oraintsu esana da, tamalgarria izan dala euskerearentzat Peru Abarka lango liburuak, bizkaieraz egiñikoak, argitara etorri izana. Olango liburuakaz Bizkaiko euskereak goi-maillatxo lortu ei eban, eta ori euskerearentzat kaltegarri izan ei da. Lapurdiko euskereak eta Gipuzkoakoak, au azken beten Kardaberazek eta Mendiburuk goi-maillatu ebelako, orrexek biok bakarrik ei euken aintzat artuak izateko eskubidea. Bizkaikoak bururik jaso ezpaleu naiago, ilda geldituko balitz oba.

Nozik bein, benetan, gauza bitxi ta itzalak ikusteko edo entzuteko erea etorten jaku. Bizkaiko euskalkiaren eriotzea zeren edo zeñien onetan jazo leiteke? Zeren edo zeñien onetan beste edozein euskera edo euskalki galtzea? Ezeren ez iñoren onetan be ez; euskera osoaren kaltetan bai, eta inguruko erdera indartsuagoen onetan. Orixe da egia. Orain Zuberoko euskerea galtzen dan lekuan, aren utsunea ez dau beste iñongo ez ezelango euskereak betetan; ez da ara beste euskerarik sartzen. Gipuzkoako, Bizkaiko naiz Lapurdiko euskerea galtzen dan bazterretan, Frantziako edo Gaztelako izkuntzak betetan dabe areik itxitako lekua. Gaurko egunotan bertan, euskalki bat itota ipinteko eta beste euskera bakar bat sartzeko alegiñak egi-teak badirudi eztakarrela beste ondorenik: euskerea galdu eta erdereari indar emotea.

Aitatu dodan badaezpadako eretxi orretan, beste uste okerrik be badala esan bear: Mogeldarrak agertu arte Bizkaiko euskerea bape landu bakoa izan zalako ustea. Etzan ain landu bakoa. Euskal-literaturatik zarrena, XVgarren mendeko kanta zarrak, aldi atako alderdikeri eta burruken otsak ekarten deuskuezan eresiak osatzen dabe, eta geienak Bizkaiko euskeran egiñak dira. Amaseigarren mendean esaera zarrezko sorta eder bat agertu zan, euskera zarra ikasi ta aztartzeko ain liburu egokia. Nongo euskertan? Bizkaikoan.

Larramendi dago gure lenengo gramatikalaritzat. Baiña ez da lenengoa. Beste bik aurrea artu eutsoen Lapurdi aldean, Sylvain Pouvreau zanak eta Bizkaian, bilbotar batek, Rafael Mikoleta abadeak. Onek atera eban, beste biak baiño lenago bere gramatikatxoa, eta ipiñi eutsan tituluak berak diño argi bai argi zein euskeratan dagoan: "*Arte breve de la lengua vizcaína*". Gizaldi berean Oihernarte Zuberoko gizon jakituna eta euskal-idazle ezagunak, euskerazko bertsoak neurtzeko arau batzuk emon nai izan zituan, eta eredutzat jarri zituan bertsoen artean, Bizkaiko euskerazko batzuk dakaz. Gizon andi onek gaurko batzuk baiño lotsa ta begirune andiagoea eutson beste euskalerrietako euskerari. Oraintsu agertu da Markiñan, liburu baten barruan argitaratuta, amazazpigarren mende orretako poemarik luzeena. Bizkaiko euskeran dagoala esan bearrik ez.

Amazortzigarren gizaldian idatzita, oso ospetsua egin da Barrutia aramaiorren antzerkia *Gabon gabererako*

ikusizuna Antzerki bikaintzat dago Bizkaiko euskerazkoa au be, geien bateñ

Bizkaiko euskerea askok uste daben edo gurako leuken baiño landuago egon da aspaldi aspaldiko urteetarik ona. Bizkaiko eresi eta kanta zarrak, esaera zar, olerki eta antzerkiak ez dira gauza utsa iñondik iñora. Mogeldarrak eta onegaz batera agertu zan idazle mordoa ez dira ezerezetik eta uste barik sortu. Añibarro, Zabala, aita Bartolo eta Astarloa ez dira beste iñoren aurrean lotsaturik geldituko. Eta laster ikusiko dogu Bizkaiko Idazlerik gure literatura urritxoan bide barriak urratzen. Bizkaiko idazleak aurrelari agertuko jakuz nobelagintzan, eta literatur-mota au beste euskalkietara zabaltzen.

* * *

PERU ABARKA

Peru Abarkaren egilleaganik asiko naz. Auxe da itzal-di onen lenengo gaia. Baiña aurrera jo baiño len, zeozertxo esan nai dot egillearen barri. Lenengo ta bein, nontarra dan.

Markiñartzat egon da oraintsu arte. Orain Eibartarra dala esaten diardue. Beronen urrengo anaia, barriz, Debatarra. Joan Antonio Mogel onen lloba bi be, biak euskal idazleak, bata Debarra egiten deuskue, eta bestea, andrazkoa, Bizeta Mogel, Azkoitiarra. Guztiak pasako txoriak izan ziran erri orreitan. Gurasoak osalari izanik, an or emen jaiotea jazo jaken. Baiña izatez Markiñerrak dira. Eta urte gitxi batzuk kanpo-errietan eginda, baten batek urte bete egin barik ia, euren abira biurtu ziran, Markiñarra, beste errietan ezelango sustrairik itxi barik. Ez Eibartar, ez Debar, ez Azkoitiar dira. Euren aita-amen etxeoak dira: Markiñarrak, Bizkaitarrak.

Peru Abarkaren egillea izan zan, orraitio, luzaroen kanpoan egona, Eibarren eta Deban, zortzigarren urterarte. Argitaratu zituen lenengo liburu batzuk Gipuzkoako euskeran egiñak baditu, orrek ez dau esan nai Giputza danik. Geiago zabalduko ziralakoan egin eban ori, ez bere burua giputzat eukalako. Giputza arrotz eta atze egiten jakola autortu dau bere liburu baten asieran. Barregurea emoten dau gaur idazten diran gauza batzuk irakurteak. Esaterako, Bizenta Mogelek, bere *Ipui onak*, Azkoitin bere umetan ikastako euskeran idatzi zituela. Bizenta orrek urtea bete orduko alde egin eban Azkoititik, eta Azkoitiko euskerea ikasi? Ikastun ona izan ei zan, baiña ez orren bestekoa, orren goizetikoa; Gipuzkeraz osabearen eragiñez eta laguntzaz idatzi zituen ipuiñok. Arrezkero bizkaieraz idatzi eban beti.

Joan Antonio Mogelek liburu bi idatzi zituen gipuzkeraz, biak bizkaieraz be itxi euskuzanak. Baiña batez, be biz-

kaiera utsean itxi euskun osperik andiena emon deitsana: *Peru Abarka*.

Zer da, baiña, *Peru Abarka*? Euskeraz idatzi dan libururik irakurgarrietakoa ei da. Euskeratik erderetara itzulita, munduan zear ezagutua izatea merezi dauanik bada, auxe ei da bat. Euskerazko lenengo elebarria dala be esan dau norbaitek.

Liburu au zer dan jakiteko, entzun deiogun egilleari berari. Berak diñosku itzaurrean zek ekarri eutsan Peru Abarka idazteko gogo.

Euskereak edozetarako balio dauala agirian ipiñi naiez ebillela, Luis Vives Valenciako latin-idazle eta maisu andiaren Alkar-izketak edo Latin ikasteko jardunak ekarri ei eutsan gogora berak be aren antzeko zerbait egin bear ebala. Euskerazko jardunaldi batzuk asmauko ditu, euskerazko alkar-izketak, baserritar baten eta kalekume baten artean. Baserritar eskola bakoa maisu dala eta kaletarra euskalduna, ikasle. Baserritarra eskola bakoa da, baiña euskera-kontuan bera irakasle. Kaletarra, odolateratzaille, azurkonpontzailletakoa, erderazko *Barbero* esaten eutsenatarikoa, giza-gorputzaren anatomia ikasia.

Mogelek sei jardunalditan banandu dau gaia, geien geiena Peruk eta Maisu Juan deritxon barberuak alkarren artean daroena. Eurok dira berba-lagun nagusi. Baiña ez bakarrak. Tartean tartean beste batzuk agertuko dira eta azkenaldean geien.

Non eta ardan-etxe baten alkar aurkitu dabe Peruk eta Maisu Juanek lenengoz. Peruk gogor artu dau beste ori. Ain apain eta dotore jantzita dagoan batentzat ez ei da egoki ez itxurazkoa alango leku baten sartzea. Bera be ez ei da joaten olango lekuetara nora ezean, premiñaz eta ezin bestez baiño. Gizon matrakari, burrukazale, etxekalte, alper eta baldanentzako lekuak dira-ta, berariez ei jako ondo egiten olango gizonakaz bere burua bat egitea. Olantxe asi da Peru Maisu Juani adarra joten eta ziria barrurraño sartzan. Larregizko zaparradea izan da besteak asarratu barik eta onez entzuteko. Bakeak egin eta bertan gelditu dira jateko eta lo egiteko, alkarregaz jardun eta jardun. Maisu Juanek ez dau an aurkitzen gauza onik. Jan eta oia, dana da an txarra, iguingarria, nekagarria. Ezin dau lorik egin. Bien bitartean goiko sabaian dago gizon ordien bat kantari.

Irri-kanta bat lenengo bata eta gero ez dau bada bertso luzeetan entzun bear izan Maisu Juanek berak azurrak konpondu gure izan eutsazan bati jazorikoa? Gixajoak, azurrak len baiño miñago ebazala, atso sorgin bategana joan bear izan eban, osatuko bazan.

Urrengo goizean ardan etxe atako atsoak janaren eta ostatuaren kontu goregia aurkeztu deutse Peru ta Juani. Misu Juanek ordaindu barik joateko deabrukeri bat asmau dau: atsoari urdai-zati bat, labangarri bat ipiñi aurrean, laprast eginda jausi ta azurren bat ausi dakion. Gero, egingdako kaltea osatzeko atxakiaz, zorra kitu egingo dau, osaketaren truke. Peruk ez dau maltzurkeri ori ondo ikusi; oste txarren bat ekarriko edo deutso Maisu Juani.

Ostatutik urtenda, Peruren etxerako bidean, txarri ilte bat da. Juanek bere anatomiazko jakituria erakutsi nai dau, baiña Peruk izen bitxi ta barregarririk barik, txarriaren gorputz-atat guztiak banan banan emoten deutsoz, eta barberuak beste eta obeto dakiala erakusten dau.

Irugarren jardunaldia Peruren etxean da. Illuntzean eldu dira bertara. Ipuñiak esateko ordua. Peruk bere

semetxo bati esan azoten deutso bat, bertsozkoa, basoko ta etxeko sagu biena. Aparitakoan, maian daukezan janari-edarien aurrean, etxaldean dituen ondasunen zeaztasunak emoten deutsoz ostatuz daukan adiskideari. Danetik dauko jateko, intxaur gaztaña, sagar, madari, aragi, ortuari, egazti, usakume ta geiago; edateko, Maisu Juani aparian eskiñi deitsan lez iru ardao mueta, txakolin eta abar; korta bete bei ta idi, lanerako ta janerako. Mendian artalde polita, ganera. Baiña, maiteen, ondasun guztiak baiño maiteago, andrea ta seme-alabak ditu, ondo aziak guztiak, eskekoentzat ta bear izana daukentzat eskuzabal izatera egiñak. Apalondo luzea izan dabe, eta ez doaz lotara, errosarioa esan barik, dana obeto amaitzeko.

Urrengo egunekoa da laugarren jardunaldia. Maisu Juan jagi daneko, Peruren etxekoak orduak daroetz bako txak bere lanetan. Peruk gauza asko daukaz egun onetan bere adiskidiari erakusteko. Ola batera doaz lenengo, ango lanak eta bizimodua ikusten. Maisu Juani ekarri dauan soiñeko dotorea kendu eta olarako egokiagoa dan beste bat jantziago deutse. Gizon miske ta bupera arentzat latzegia, orraitio! Bidean berbaz doazela, euskerazko esaera zar bat entzun da. Eta orra bien autua olango esaeren goraberan. Maisu Juanek bat baiño eztaki... Peruk irurogetaka botaten ditu erreskadan. Olara elduta, an diardu Peruk Maisu Juan eskolatzen. Ango langille eta mailluen astrapalea entzuten dan bitartean, Peruk dana azalduko deutso: ango langille bakotxaren, ijela, urtzaila eta gatzemalleen egitekoa, ango tresna ta zati guztien cuskerazko izenak; dana.

Eguedirako etxean dira barriro, bazkalduta eta arratsaldean bosntza, soiñekogintza ta abar. Lan guztiotako tresnen izendegia or emoten dau Peruk. Eta dena amaitzeko, or dator liñuaren penak kskide bi, bata giputza; bestea, frantsesa dalakoa, Baigorritarra. Torgori eta Joanis. Maisu Juan arriturik gelditu da, Peruk etaera batetik besterako umetan ikasirik otoitzak esan dabez. Eta len baiño arrituago gelditu da Maisu Juan, frantses luebagin batdunaldiaren asierea. Peruk basoak ikustera eroan gura ditu. Baiña arako bidean Maisu Juanen jakingureak frantses euskalduna berea, bakearen billa. Beste lagun asko an gelditu zirean, eta ezin bestez, indar utsez gerrara joan. Eta ori egia dala erakusteko, aantzun: Deabruak eraman bazinzez. Kanta au, bear bada, *Peru Abarkak* bakarrik jaso dau, ez beste iñok. Joanis orain emengo Orretan abade eiztari bat egin jake lagun, eta orain guztiak barriketa luzean sartzan dira. Euskerazko itzen etimologiak, itz bakotxak zer esan nai dauan azaltzen, alkarren leian dabiltz, bata baiño besteak zorrotzago agertu guraz.

Noz edo bein Peruri be etorri jako, besteetan lez, bere eskolea emonez, basoko abe bizien edo zugatzen motak eta izenak azaltzozala, txakurzaunkak dira. Gizon bat, arma ta guzti. Epaikariak bialdua da, Maisu Juanen billa. Lenengo eguneko ostatuko neskak ez dago beste iñor ementxe gagozanok baiño". Baserritar jantirik egoteak balio izan deutso Maisu Jaunari. Alguazillak ez dau an gizon dotore jantzirik aurkitu, eta ez dau ezagutu, ez deutso antzik artu.

o izango ei da, Peruren etxeko jarraigarri onak ikusita gero. Baiña lenago autortu dau baserritarren euskerearen jatoriasuna eta garbitasuna, edozer azaltzeko daukan balioa, eta kalekumak baserritarak ganik zer ikasi asko daukela.

u orren euskerea oso garbia danik. Geroago ikasi doguzan euskal-joskera lege batzuk Mogekek ez zituan menperatu, eta ezin Peruren agoan utsik bape bako euskerea ipiñi. Bestela, Peruk darabilen euskerea jatorra eta aberatsa da. Gaurko euskaldunak be asko iatz emoten deuskula. Eta dana, ain egoki, eta alperreko berba galdurik barik. Olagizonak, euleak, gorulariak, karegilleak ondo itxuratuta dagoz. Gauzak garbi ta zeatz esaten eskola onekoa zan Mogel. Gero, bestela baitakoan, liburua gozagarriago egiteko, jardunaldi bakotxean or sartu ditu Euskalerrriaren irudi osoagoa emoteko diran ainbat gauza jakingarri: bert-solariena, ipuiñena, esaera zarrena, gorularien kantua, Frantziako gerratekoa, eta abar.

* * *

AZTERPENA

Peru bera dala-ta zer esan? Zelan aurkeztu dausku Mogekek? Basati onarenik ez dot uste ezer asko daukanik, batzuk bestera ezan daben erren. Baserritar arro samarra, bai, agertzen jaku. Zirikalari eta adar-jotzaillea be bada. Maisu Juan ardanetxean aurkitu dauanean esan deutsazan irain-itxurazko berbak, berba gogorregitxoak, lotsa bako batenak baiño geiago zirikalari ta adar-jotzailearenak dira. Azkenengo egunean be, aguazillaren aurrean, zirikalri ta adar-jotzaille alderdi ori agiri jako, adarra joteko gogoa erakusten dau. Adarra jo deutso polito-polito aguazillari bere lagun pekataria estaldu deutsanean. Eta gozatsu egin dau barre, aren matrailla-albo gizenak, aren garri mordoa-aren silbot ederra dala-ta. Ez dago, ez, bera olan, makallau-saldea artuta, ez sardiña ustelduak janda!

Zein sailletan sartu idaz-lan au? Alkarrizketa utsak dira sei jardunaldiok, Lauki utsak dira, ala elebarri saillean, sartu geinkez?

Esan dogunez Vives Valenciarrak emon deutso Mogeli lan au egiteko asmoa. Baiña alkar-izketaz egiña dan arren, egillea ez dabil Vivesen bidetik. Peru Abarkak, bere asmo nausiagaz batera, jardunaldirik jardunaldi, ari bat bera daroa. Gauza asko, gai asko, jazoera asko sartu dituan arren, ari batek lotuta dago dana, eta bizi modu baten ispillu da. Eta jazoeren aldetik, batek egiten dau ardatz nagusi, Peru Abarkaren giltzari; ardan-etxeko atsoari Maisu Juanek egiñiko barrabaskeriak eta onen gomutaz eta azken zoriontsuaz emoten jako amaiera. Olan sei jardunaldiok nobela baten antza eta egiturea artzen dabe. Mogel ez da sartzen, *Peru Abarkan* atera dituan berbalagunen barru-barruko nortasuna agirian ipinten. Egin dauana bere asmotako naikoa eritxi dautsan neurrian egin dau.

Tamal andia, Orraitio, tartean tartean dakazan argibideak erderaz emon dituala. Baiña ori, erderazko itzaurrea bera lez, kaletar erdalzaleen argibiderako egin dau. Eta ez da tamalik txikiena, Mogelen lan onek ez ebala argitaratzerik izan, egillea il eta ia larogeigarren urterarte.

Eta argitaratu zanean, ain zuzen, orduantxe asi zan euskal-nobelagintza plazaratzen, bera eta bizkaitar batzuk aurrelari zirala.

Peru Abarka argitaratu ta bertatik asi zan gure elertibaratz lora barriz jazen: antzerkiz eta elebarriz. Eta ele-

barrigintzan, Bizkaiak artzen dau aurrea, Bidasoaz onantzatzako euskalkietan beintzat.

Daskonagerrek idatzitako *Atheka gaitzeko Oihartzunak* aitatzen dabe askok euskerazko lenengo nobelatzat: baiña ez eban nobela ori Daskonagerrek euskeraz idatzi, frantsesez baiño, eta beste batek gero euskeraratu. Piarres Adame da beste batzuentzat lenengoa. Atakotzat aitatu deusku au Aita Gotzon Garatek oraintsu atera danan liburu baten. Eta onen urrengo, Azkue andiaren *Bein da betiko*. Biak urte biren aldeaz argiratuak. Biak be Azkue beraren eritxiz benetako nobleak baiño geiago nobelatxoak, irakurgaitxoak dira, laburtxoak diralako, Azkue beraren beste batzu lez.

* * *

AUÑAMENDIKO LOREA

Orregaitik, Azkuek *Auñemendiko Lorea* aurkeztu eban lenengo euskal-irakurgaitzat edo nobelatzat. "Auxe da, iñoan", Euskalzale "ren orrietan, auxe da euskeraz egin dan lenengo irakurgaia". Eta Euskalzalek berak saritua, ganera.

Bilbon agertu zan, 1898garren urtean. Eta egillea Domingo Agirre, ondarrutarra.

Antziñako jazoerak gaitzat artuta egindako elebarria dogu berau. Aldi atako idazle askoren joera ezaguna da ori, bai atzerrietan, eta bai gure artean. Bide orri jarraitu eutsenetan, ospesuak dira gure artean Navarro Villoslada eta Arakistain. Biok artu ditu Domingo ondarrutarrak erdutzat, berak antortu eban lez eta euskal-literaturan bide barriak urratzen asi da.

Nora jo dau Domingok gai billa? Zazpigarren mendera. Zer da edo nor da Auñemendiko Lorea au? Ez da, Villosladaren Amaia nobelan lez, idazleak asmauriko iñor. Azur eta aragizko norbait da, izan: zazpigarren mendeko andra euskaldun bat, Euskalerrian jaio eta atzerrian illa. Kristiñau ona, etxe oneko alabea. Aldarbeto Frantziako Dukeak eroan dau bere emazte egiteko, Frantziako erregearen serbitzari biziteko. Lau seme-alaba mundura ekarrita, gero senarra il jakonean, euskaldunen eskuz illa izan be, berak eta bere senar zanak sortutako seroretegi baten sartu da eta berrogei urtez komentu atako ama nagusi izanda gero, santa izenean il da. Santatzat dago eta aintzat ospatua izan da leku askotan, eta Baiona-aldean bebai oraintsurarte. Riktrudis edo, Baiona-aldeko euskaldunak esaten dabenez, Riktruda dau izena. Beronen bizitzan, euskaldunen artean kristautasuna zabaltzen eta sendotzen ekin eutsan Amando doneak eragin andia izan eban. Senar emazte biak eta eurok izandako iru alaba be santutzat ospatuak izan dira.

Auxe da Domingo Agirre bere lenengo irakurgaia idazteko zirikatu eta berotu dauan gaia.

Zazpigarren gizaldi ori euskaldunen edestian garrantzi andikoa izan da. Batetik, euren erritasunari eusteko, euren erriaren jabe jarraitzeko, burruka latzak ekarzen Frankotarren aurka. Bestetik, kristiñautasuna euskaldunen artean sartuta dagoan arren, menditarren artean, areriorik be bada eta ortik anai-arteko burrukak sortzen dira askotan. Arerioak aurka datoz kanpo aldetik, eta barrukoak ez

dabiltz alkartuegi. Ez dago bake onik.

Egoera orretan or agertzen dira biotz bi, alde batekoa eta bestekoa bat egiñik, alde batekoen eta bestekoen artean bakeak egin guran. Zer nai dau Aldabertok? Euskaldunai bakean istea, euren erriaren jabetasuna autor-tzea. Zer nai dau Riktrudisek? Euskaldunak euskaldun izatea eta alan irautea, euskaldunen biotzetan gorrotoa il eta maitasuna, alkarganakoa eta atzerritarrak ganakoa, erein eta sartzea: guztien artean Kristoren bakeak egitea. Biak lan eder orretan Amando deuna dabe kiñatzaille ta laguntzaille.

Esan daigun Domingo Agirrerentzat orain egoaldekoa esaten deusagun Euskalerrri au kristiñau zala orduan. Iparaldean gelditzen ei ziran mendi goietan talde batzuk kristiñautasuna on artzeko ezetzean egozanak; baiña kristiñau ziranak eta ez ziranak, guztiak dagoz frankotarren aurka, arei erasoteko deiari erantzuteko prest euren jabetasunari eusteko gertu. Baiña kristiñau ez diranak ez deutse siñisten geiegi kristiñauai, susmo txarretan ibiltzen dira sarritan, saltzailleak ez ete diran bein baiño geiagotan, frankotarrak kristiñau dirala-ta, arein alde egingo ez ete daben. Egoera larri au jaso nai eta agertu nai izan dau gure Domingok bere elebarri onetan. Jakiña: gai guztia ez deutso Riktrudisen bizitzeak emon. Betegarri asko asmau bear izan dau dana aurrera eroateko: alde bateko eta bestekoen buru egingo dabenak asmau, euren asmo eta joan-etorriak azaldu. Kristiñau frankotarren aldetik, ezagunak dira bi: Aldaberto dukea eta Amando mixolaria Adalberto, euskaldunak baktezko aginduaz, Euskalerrira etorri da, bere gudarien buru; Amando, Frantzia goienean ebillen mixolari eta Kristoren siñismenaren zabaltzaille; baiña erregiak andik erbestera bialdu dau, Baiona aldera.

Euskaldun kristiñauen aldetik, Riktrudis beraren aita da nausienetakoa, Mendiolako Arnaldo. Kristiñau egin bakoen aldetik, Oxinbelzko Otxoa eta onen seme Fortun. Eta guztion inguruan, beste jardulari batzuk asmau ditu idazleak morroi, bertsolari eta abar. Morroien artean, bat mozkortia be bai, guztien barreragille eta barregarri dabilana.

Matazearen lenengo aria Aldabaldo eta Fortunen arteko burruka batetik asi da. Aldabaldo Amando ikustera Euskalerriratu dan baten, Fortunek barre ta ziñuka ekin deutso kristiñauen aurka. Aldabaldok erantzun eta burrukea izan dabe. Fortunek su ta garretan urten dau andik eta frankotar guztiak euskal-mugetatik urrin botateko euskaldun guztiak armetan jarri nai ditu. Batzarrerako deia egin dabe eta batzarra bakearen alde jarri da. Batzar orri bertsolari batek emoten deutso amaierea.

Euskaldunen indarrak eta askatasun-naia biztuteko sekulako bertsoak bota ditu, baiña ez ei da oraingoa burrukarako ordua.

Amandoren etxean egin dabe Riktrudisek eta Adalbal-dok alkarren ezautzea. Biak asmo batekoak dira. Adalbal-dok txarto ikusten dau frankotarrak eta euskaldunak beti alkaregaz burrukan ibilli bearra. Bakotxari berea. Euskaldunak euren erriaren jabe ikusi nai leukez. Atarako esku-bidea dauke. Ez jake ori eragotzi bear. Ori da Kristoren legea. Riktrudisen gogokoagoko gauzarik ezin esan.

Arrezkero asiko da matazea loditzen. Adalbaldok bere emazteztat nai dau Riktrudis. Eta etsai amorratua dauan Fortunek be bai. Onek, iñoz, Riktrudisen biotza irabaztea-

rren kristiñauen alderako gogo ohea erakutsiko dau. Zein izango dau Riktrudis berak bere biotzaren kutunena? Azkenean, aldabaldo. Eta onek emazteztat eroango dau Frantzia goienera. Baiña Riktrudisek bere erria biotzean daroa. Euskaldun jarraitu gura dau edonon. Euskeraz egiteko euskaldunak eroango ditu neskametako. Bizi dan lekuan bertan Euskalerrri txiki bat egingo dau, eta "Erbes-te" ezarriko deutso izena. Euskalerrria biotzean, dauala bizi da erbeste orretan.

Baiña benetako Euskalerrrian, euskaldun batzuen artean gorrotoa itxi dau. Bere odolekoen artean be baditu kristinau ez tiranak batzuk, eta oneik saltzailletzat dauke, bere erria saldu daualakotzat. Eta urte batzuk geroago, Erregeak Aldabaldo Euskalerrira bialdu dauanean, Riktrudisen artekoak eta Fortunek, ain zuzen, bidera urten deutse eta bertan eriotza gogorra emon? Zegaitik? Auñemendiko Lorea, euren biotzeko kutuna zana kendu ta eroan eutselako.

Riktrudisek azkenengo osteratxoa egingo dau bere errira, senarra il deuten lekua ikusi eta bertan otoitz egite-ra. An bertan aurkitzen dau Fortun bera be. Alkar ikuste orretan biotz biotzez parkatu deutse bere senar maitearen iltzaille guztiai, Fortuni be bai. Gero serora sartuko da, eta serora biziko da senarra il eutsenen eta Euskaldun guztien alde otoitzean beti. Fortun, Riktrudis azkenengoz ikusi ta laster, kristiñau egingo da eta kristiñau legearen zabaltzaille.

Emen esan doguna elebarri onen bizkar-azurra baiño ezta. Domingo Agirrek aragiz, zanez eta odolez jantzita eskiñi deusku. Edestiak emon eutson ari mengel eta legor-rari idazlearen irudimenak ondo jakin dau bizi bero ta gogo suzpergarria emoten. Irudimen bizia ta olerkari-sua ageri jakoz egilleari, Euskalerrriko bazterrak eta giroa begien aurrean jarten dauskuzanean. Alkarizketak bizi ta mamitsuak ditu. Eta dana dakian nobelagilleen antzera, lañoetan zear eroanda lez garoaz baterik bestera, bazterrik bazter, auzorik auzo, jazoerarik jazoera, asi ta amaitu arte, gero ta gogoa eroangarriagoko ikuspegiak eskintzen.

Eta danean agiri da abadearen biotza, kristoren bake-zalea eta euskalzale sutsua, zaletasun biok Riktrudisen biotzera daroi azala. Domingo Agirre sermolari ona izan zan eleizetan; baiña ez eleizetako sermolari bakarrik, bere elabarrietan be sermolari jarraitzen dau, eta etorri on eta ugariko sermolari. Kristoren bakea naia eta euskalzaletasunak egin eban olerkari eta sermolari, emen ageri dan lez. Karmelo Etxegaraik itzaurrean esan lez, orretarako gai egokiak billatzen ditu, eta ez egokiak bakarrik, egoki esanak gaiñera. Auñemendiko Loreak ez ditu Domingoren beste elebarriak aiña argitaldi, eta ainbeste irakurle izan bearbada; baiña Azkuek, Euskalzaleren orrietan argitaratzen asi zanean esanikoari errazoi osoa emon geinako: "O-netariko lan asko baleukaz gure euskera ederrak, urte gitxi barru burua jaso al izango leuke".

* * *

EUSKEREA

Elebarri onetan Domingok darabillan euskerari dago-konez, *baiña* bat aurkitzen deusagu: Larramendiren Izte-

giari lotuegitxo dabillega oindiño. Ustakide, betsgio, arau-dea, jostain, salgaista, otsandigoe, lotoskinde eta abar. Laster ikasiko dau lotura ori askatzen.

Giro zarraren eta barriaren arteko idazlea da Domingo. Azkuek bultzatuta ba etorren giro barria, joera barria, euskera jatorragoa eta errian sustraituarena ekarrena. Laster sartuko da oso-osoa giro barrian ondarrutar idazle au. Urrengo elebarrian, Krezalan aurrekada andiak egin ditu.

* * *

KRESALA

Zuzendu daigun orain gure begia Domingoren irakur-gai barri onetara. Gizaldi onen asieran, *Euskalerrria* aldizkariaren orrietan asi zan argitaratzen, 1901n asita, Zatika zatika argitaratua eta zatika zatika idatzia. Idatzi ala, aldizkariaren orrietara bialtzen dau. Orregaitik azkenengo ataletan Begoñako Amaren omenezko jaiak, 1904 be aitatzten ditu.

Kresala askorentzat Domingo Agirre idazlearen lanik onena da eta irakurle askoren artean ondo ezaguna. Nok ez dau *Kitolsen* izenik entzun? Nok ez daki Tramana ta Brixen arteko barriketaldien barri? Eztira elebarri onen ari nagusia daroenen izenak. Baiña Kresala aitatzean, askori ez jake beste gomutarik etorten: Tramana ta Brixen arteko berba gazi zorrotzak eta Kitolsen agotik entzundako ekaitz kontaketa bizi ta biotz samurgarria.

Barriro agiri da emen be egilleak Auñamendiko Lorean erakutsi eban gure erriaganako eta euskeraganako maitasuna. Euskera landu gureak eta euskaldunen bizomoduaeren arpegi batzuk ezaguerazo naiak eragin deutso Domingoren lumeari. Entzun berak itzaurrean dirauskuna:

Euskerea, aberatsa dan legez da ederra ta egokia, ta obeto edo txartoago, guztiz antxiñetatik dabil gizonen auan, baiña liburuen orrietan, oraindaño atzo goizekoa da eta izkiratzaillen lumeak ikutu, palagu, txera ta leunketa gitxi egin dautsa gaur artean”.

Domingok euskera landu, leundu ta irakurgarriago egin nai izango dau “eta orretarako lanean ekin: “Egin daigun lan aspertu barik. Iñorenagaz aberasturiko izkuntz asko dakusuguz arro ta lerdan, alderdi guztietan euren buru apainduak erakusten. Atera daiguzan guk be geure etxe barruko aberastasunak, apaindu daigun al dogun añan euskerea eta erakutsi daiegun erbesteko arerio ta erriar erbestetuai (erderazaleai esan gura dau), eztala ilteko zorian bizi eta eztala gañera eurak uste daben legez ilgarria... Danon artean asko egin daikegu. Kresala da nik euskerearen alde gaur dakartan ondar aletxo”.

Itxastarren irudia da au: ondar aletxo. Eta itxasaldeko gaiak dakaz oraingoan, eta itxasaldeko izketan, eta ango itzen ondasunez gañezka. Zergaitik au? “Entzun barriro ondarrutar andi onen berbak: “Itxasondoko errietan bakarrik esatan diran itzak bakarrik baleukaz, euskerea ondo arlotea legoke; goierrikoen agoetan entzuten diranak bakarrik baleukaz, elitzateke oso aberatsa izango. Euskerea aberatsa da, baiña bere aberastasunak toki batean esiturik eztagoz; Euskalerrri guztian zabaldurik

daukaz: batzuk baso zugaztitsuen barruan, beste batzuk mendien egaletan, beste batzuk Kantauriko itxasoaren ertzean Bizkaian legez Gipuzkoan, Gipuzkoan legez Naparroan, Naparroan legez Frantziako anaien artean. Alderdi guztietan sartu jako gorriñea; alderdi guztietan dagoz oraindiño euskerean sustrai onak eta landara mardulak bere bai. Gorriñea kendu ta sustrai batetik bestera aldatu ori da guk egin bear doguna. Eztogu erderazko itzik aotan erabilli bear, esangura doguna euskerazko berbakaz esan daikegunean”.

Domingoren asmoak eta elburua or datoz. Eta asmook aurrera eroan eta buruteko, zelango gaiak artuko ditu oraingoan? Bere begien aurre-aurrean daukazanak, ez antziña batekoak, Auñamendiko Lorean lez. Gaurko Euskalerrriko, edo bere egunetako gaiak. Alan Irudimena askatu bear gitxiago izango dau. Ona berak zelan diñoskun: “Bertan agertuko diran gizon da emakumeak eztira neure irudimenak asmau dituanak, oso itsu ezpanago ta amesetan ezpanabil, bizi-biziak dira, Arranondoko sardiñak legez; neuk ikusi ditut Arranondon eta edonok edozein itxaserritan ikusi daikez. Euren alkarren arteko jarduna be guztiz da egiazkoa, gatzgaran andiak kendu deusadaz baiña. Domingorentzat Tramana ta Brixen arteko berbeteari gatzgarau batzuk kentzea bearrezkoa zan, bestela gaziegi urtengo eutsan, eta, berak diñoanez, “gauza gaziegiak eztagoz bein bere ondo”. Bizkaiko esae-reak diñoanez, “larra, txarra”; edo “larrik ez onik”.

Gure itxas-erri bateko oiturak, Domingo bera jaino zaneakoak, ango andra-gizonen eta arrantzaleen bizimodua ta izakerea erakutsi nahi izan deuskuz Agirrek emen. Berak bere begiez ikusi izan dauan bizimodua, bere belarritz entzun dauan berbeta bizi, gatz eta piperduna. Erri orretan ezagutu dituen zorioneko ta zorigaitzoko egunak eta jazoerak; bertako Garizuma ta jai-egunak, ango eztopadak, suak, dantzak edo Saliñak. Batez bere arrantzaleen bizitzari bota deustso begia zorrotzen: batez be, Sardinjar eta Txanogorri, eta onein bion semealabai. Domingok begi-belarriak zur ta erne erabilli ditu inguruko bizia, inguruko lagunak izakerak jasotzeko. Edoziñek daki orretan maixua izan dala Kresalaren egilea. Maixu agertu jaku Anjel eta Mañasiren ezkontzaren aria aurrera eroaten. Anjel eta Mañasi lenengoko alkarriztea ezker, gelditu dira bata bestearentzat jota legez, alkarrentzat izan bear dabelakoan.

Baiña amaika ostopo agertzen jake bidera. Batari ta besteari, bein bat, bein beste bat, aukera barriak agertu jakez. Guztiak, besteen eritxian aukerarik onenak. Mañasiri ostoporik andiena ipinten Indiano bat agertu jako. Dirua, maxia ugari ei dauko edozein arrain arrapetako. Mañasiren gurasoak arrapau ditu beintzat. Batez be, potin barri bat erosteko nakez bada nekez, dirua agindu deutse-anean. Baiña Mañasi ezetzean dago... Indianoaren indianokeri batek argitu ditu gurasoen begiak. Bera ez ei da elei-zaz ezkonduko. Baiña gurasoen eragozpena Mañasiri kendu jakonean, zerua aurka jarri jakola dirudi. Bilbon bizi da neskame jarrita, eta zer irakurten dau Bilboko egunkarietan? Ikaragarritzko ekatxa izan ei da Kantauriko itxasoan, eta ainbat ontzi ondatu dira. Sardinjarren ontzia, Anjelen aitarena, barruko gizon guztiakaz.

Negar baten doa Mañasi Ondarrura, Arranondora, bere senargaiaren illetetara doalakoan. Eta... eleizan sartu

ta zer da ikusten dauan? Sardinzar eta bere semea, antxe erriko agintarien ondoan bizi-bizirik. Amesa ete dan? Ez, ez da amesa. Sardinzar garriz, bere semeari esker ei dago bizirik. Anejelek itxasoagaz eta bere aitagaz burruka gogor luzea erabillita, berak eta aitak bizirik iraun dabe, beste ontzi bat agertu ta biak jaso zituen arte. Une onetan Domingo nobelagillea dala aitzuta edo, gure itxas-gizonai kantaka ta goraka asten da. Eta eurai eskintzen dautse Kresala, "orretarako geinbat egin dotan Kresala".

Gañerakoa berez dator. Eztago ezkontzaren aitamenik. Baiña Arranondoko jai egun baten, Antiaguako Amaren egun baten, an dabiz guztiz zoriontsu senar-emazte gazteak euren lenengo semea eskutik dakarrela. Tramentzat be eztago Mañasi lango emakumerik. An dira Sardinzar eta Txanogorri euren zorionaren gozoa ausnartzen, euren mundualdiari agur esanada, Ebanjelioko Simeonen antzera *Nunc dimittis* abesteko bape atzerakuntza barik.

AZTERPENA

Alde guztietatik begituta balio andikoa da Kresala. Erriaren ariman sartu eta an ikusiak azalera aterateko, Karmelo Etxegararen berbakaz esango dogu barriro, Domingo Agirrek gai egokiak aurkitzen daki eta era egokian esaten.

Egilleak berak *mamin gitxikoa ta erkiña* dala diño Kresala baiña dakienean ustez, lan bikaiña, euskalebarrien artean, onena ezpada onenetakoa. Frantsesen izkuntzara itzuli ta argitaratua izatea merezi izan dau, eta oneik gure berba ta gorantza guztiak baiño geiago eztabe esaten?

Darabillan euskereari Añemendiko Loreari baiño jatortasun eta erriko usain askozaz andiagoa dario... Larramendiren ikutua gero ta gixiagotako agiri jako. Ia bapez.

JOSETXO

Goazen orain Etxeitaren Josetxogana. Beste euskalkiak elebarrigintzan opor osozkoan dagozan bitartean Bizkaikoan beste nobelagille bat agertzen jaku jo ta ke: Jose Manuel Etxeita (1842-1915). Luzaroan, gaztetarik asita, itxasoan ibillia da. Manilan amasei urte egiña, eta bertan alkate izateraiño eldua. Azkenez andik etxeratu danean, azkenengo urte baketsuak euskeraren aldeko lanetan emon nai ditu, euskeraz idazten. Bertsoz eta itz-lauz. Eta orra non dakarren 1908n bere euskerazko lenengo seme mardula: *Josetxo*.

Andik urte bi barru, bigarrena: *Jaioterri* maitea. Urrengo: *Au, ori ta bestea*. Ez dautsa lumeari oporrik emoten. *Euskal-Esnalea* aldizkarian agertzen da bere lanen bat. Jaungoikozalen eta Euzkadin be agertzen da bere izena. Azken-urtean, 1915 *Euskal-Esnalea*-rako Truebaren iru ipuin euskeraratu ditu, guztiak bizkaiko euskeran. Zortzi urteren epe-barruan ez da lan egiteko makala berak egin dauana.

Josetxo onegaz apal baiña gogotsu etorren euskal-arlora: "Banator ni neure landubako arri txatxar onegaz euskerearen alde eregiten dagoan jauregira, neure alegiña egitera. Guztiz inderga, egin dodana baiño egin gura neukena geiago dala".

Mundakako baserri baten asten da *Josetxo* onen lenengo ari burua. Ijitu batzuk ekarri dabe Ondartza auzora urte biko umetxoa. Ostua, antza. Ondartzan Txomin Txiki eta Juana Mari senar-emazteak bizi dira. Seme-alabarik. Ijituen umetxoa, Josetxo, Juana Mari ikusi dauaneko, Ama ta Amaka joan jako. Euskalduna dirudi. Ondartzan gelditu da umea, senar-emazte bien pozgarri, ijituai erosita. Arrezkero zori ohea sartu da Ondartzako etxean.

Eskola-urteak amaitu dituanean, Josetxok, itxasgizonen bidea artu nai dau, eta alan itxasoan dabil ifloren menpeko, lelengo, eta gero kapitan pillotu eginda, bere buruaren jabeago, beti eskolan ezagutu eban Eladitxo biotzean eta gogoan dauala. Baiña Eladiren gurasoak ez dabe ikusi nai euren alabea ijitokume alakoaren ondotik, ez uriko bategaz ezkontzen. Ifloren ifloren be ez. Josetxo kapitan pillotu egin danean be ez. Eta Eladiri iru senargai zuzendu deutsez... Irurak Eleditxoren ezetz biribilla artzen dabe. Josetxok itxasoko ibillaldietan arrisku eta ezbear andiak ditu; eta andiena, beste ontzi batek erdi-erdian jota, berea galtzea. Non dira ontzikoak? Gitxi batzuk, beste ontzi batek jasota, errian agertu dira. Josetxoren aztarrenik ezta ifloren agiri. Illetak be egin deutsoez, illa dalakoan. Baiña ez: azkenez Montevideon agertu da, eta an inguruan gelditu da iru urtez, euskadun batzuen laguntzaz bizimodua ateraten. Dirurik naiko egin dauanean, errira dator, ezkontzeko asmoak artuta. Eta Kantauri itxasoan Santander aldetik etxerantza datorrela, ekatz ikaragarri batez ontziari basterra joazo deutso, eta mirariz orra non agertzen dan gure kapitan pillotua, Ondartzako etxearen aurrez aur, Mundakan bertan, guztien ez usterik andienean. Jakiña: berela dator ezkontzea. Nogaz eta bere betiko Eladitxogaz. Onen gurasoak be orain bigunduta dagoz Eladien alde, eta bigunago alabearen senargaia dirututa ikusi dabenean, eta laster da ezkontzea, bata besteagana-ko ziran biotz bik aurkitu daben azken zorionsua. Baiña ezta dana or amaitzen.

Guztien zoriona andiagotako egiteko, Naparroatik Etxauri erriatik barri pozgarria eldu jake Josetxoren euskalduntasuna argiturik gelditu da. Etxaurin agertu ei da umetxoa ostu eta Mundakan saldu ebenenen arteko andrea, moja jantzitan orain, Josetxoren gurasoai parka eske, eta non itxi eben esaten. Eta bai Etxaurikoak eta bai Mundakakoak, alkar arturik, ospatzen dabe Bizkaian eta Naparroan, guztien zoriona.

Atzerrian luzaro egonak, erriatik urrin bizi izanak, erri-miña sortu eta geitu egiten ei dau, geienen biotzetan beintzat. Orixo da Josetxoren egilleari jazo jakona. Eta Etxeitaren erri-miña ez da azalekoa, ez jaioterriko aizeak artu eta ango bazterrak ikusiz bizigunaz utsa. Etxeitak bere erria bere izaterik sakonenean maite dau, bere izkuntza eta ekanduetan. Ori erakusten dau bere lenengo elebarri onetan. Alde guztietatik bero dario maitasun ori. Emen agiri-agirian ipiñi deusku bere biotza: bere bizi guztian erakutsi izan dauan gizontasuna, guztiai on egingurea, bere barru baketsu eta mazala, ainbeste urtetan or munduan zear ibilli arren, bape lorrindu barik gorde izan dauana. Arritze-koa da eta ulergatx egiten jaku zelan iraun dauan ain zindo, ain kristiñau eta euskaldun. Elebarri onetan barru zitaleko lagunik, badaezpadakorik, ain zindo eztanik be agiri da; baiña idazleak ez dau itxiko olango jokabideari dago-

kon ezetza eta txar-eritxia emon barik. Ez ei da ori elebarrigilleen egitekoa. Ez ei dau elebarri barruko gizakien ez ontzat emoilie ez gazitotzat salatzaile agertu bear. Etxeita ez da, argi dago, eritxi orretakoa. Eta itxi deiogun berak asmau dituen andra-gizonakaz berari deritxona egiten beste batzuk bestera egiten daben lez, alan nai dabelako.

Josetxo, aberastan andia dauko tartean tartean dakazan jazoeretan. Jazoera mingarriak batzuk, beste batzuk alaiak, eta ikasbide ederrekoak. Olangoz baterik dago Josetxoren bizitzea. Ez daki Etxeitak bear bada, diñoana bear leuken indar eta zorrotasunaz esaten. Bere izakera gozo baketsua agiri jako or. Alan be, gaiari bizitasuna emon eta astuntasuna kentzeko alkar-izketa bizi egoiak sartzen ditu, eta batez be txitean piteango bertsoak asko laguntzen dabe orretarako.

* * *

EUSKEREAA

Euskal-joskeran askotan moteltxo badabil be, darabilan euskerea naiko dau aberatsa eta jatorra. Arrigarria, ainbeste urte atzerrietan egiñiko batentzat. Liburu guztian zear, Erkiaga idazleak esan dauanez, “esanaldi, bitxi, txanbelin eta mamitsuak” eurrez ta oparo daukaz. Eta Erkiagak berak esan dauanez, *Josetxo* au ta Etxeitaren besteak “bein eta barriro irakurtea onuragarri litzakigu oraingo edonori be”.

* * *

GURKO EGOEREA

Bizkaiko euskerazko elebarrigintzak gure gizaldi onetan eukan giroa eta indarra ikusteko naikoa dira aiatatu doguzan idazleok. Azkue, Agirre eta Etxeita larra utsean iru pago lerdan lez agiri dira euskal-literaturan. Beste euskalkiak ixillik egozan bitartean, eurak bakarrik ekin deutse arlo au lantzen. Eta eurotako bi izan dira, Azkue eta Agirre, *Ardi Galdua* eta *Garoaren* egilleak, elebarria auzoko euskalkietan sartzen lagundu dabenak. Bizkaia aurrelari Bizkaiko euskeran, eta aurrelari Gipuzkoakoan. Bizkaiak berak artu dauan baiño laguntza geiago emoten jakin izan dau orretan.

Eta zelan jarraitu dau Elebarrigintzak, bizkaierazko elebarrigintzak, geroko urteetan? Lenengo ta bein esan daigun eztala egia oraintsu Aita Gotzon Garatek idatzi dauana: Etxeitaren *Josetxo* eta *Jaioterri maitea* agertu ziran ezkerok, ez dala bete bizkaierazkorik idatzi gerrate osterarte. Azkuek, esaterako, *Ardi galdua* bere gipuzkera osotuan idatzi ba ban, ez eban Bizkaio euskerea bertan bera itxi Ia beste orregaz batera amaituta itxi eban bizkaierazko luzeago bat, *Latsibi*. Ez eban argitaratu ia *Mezenas*’en bat noz agertuko begira. Eta latsibi baiño urte bi lenago agertu zan *Mirenen Senargeia* (1934n urtean argitaratua), Oar-arteta abadearena. Elebarri laburtzua, baiña aitamena zor jakona. Oar-arteta luma oneko idazlea etorren, euskera gozatsu erritara erabillana, eta zoritxarreko gerrateak gazte gazterik galdu euskun euskerearentzako

(beste bat, Barrenso, bizkaieraz be idatzi eban giputza galdu eban lez).

Gomuta negargarriok itxita, goazen aurrera, eta aita-mentxo bat egin deiogun geroagoko elebarrigintzari. Zelan dago gaur elebarria Bizkaian?

Gorengo maila baten bi aiatatu bearko doguz: Eusebio, Erkiaga eta Agustin Zubikarai: itxasaldekoak biak. Badi-rudi gure itxasladeak euskal-elebarrigintzarako luma obeak sortzen dituala. Ango kresalak, nonbait, berarizko gatza edo dauke elebarrigilleak sortzeko. Lengo irurak, Azkue, Agirre eta Etxeita itxasaldekoak dira, eta itxasaldekoak oraingo biok be. Biok irabazle gelditu izan dira ainbat sariketetan.

Erkiagak bere elebarri bi argitaratu ditu bizkaieraz *Arranegi* eta *Batetik bestera*. Beste baten gipuzkerara jo euskun, Azkueren Gipuzkera osoturantza egitearren edo. Orain laugarrena daukala jakin dot, Bizkaeraz egiña. Erkiagaren euskera aberats eta etorri onekoaren aurrean txapela erantsi bear dala uste dot. Bostgarren bat eta daukan nago.

Eta Zubikarai? Gaurko egunotan idazle ugariagorik, ez dago bear bada. Arlo asko astindu ditu: gazetalari, antzerki-egille, nobelagille, olerkari, zer ezto gu bera. Itxasaldeko bizitzak, oraingoak eta lanagokoak, arrobi ugaria eskintzen deutso elebarri-gaiak aurkitzeko. Ez dot bape aiatatuko. Errezkada luzetxoa agertuko litzateke. Eta Bizkaieraa darabil beti.

Zubikarai eta Erkiaga lango idazleak dauazan biartean, Bizkaiko euskereak ez dau besteen aurrean lotsaz agertzeko bildurrik.

Alan be, onek biok eztira bakarrak. Gereño bilbotarra, orain beste euskara batera jo dauanarren, bizkaieraz asi zan nobelagiñan. Or daukagu beste elebarri bat, Kuliska Sortan sartuta: *Deunor*. Egillea: Santos Rekalde. Bizkaieraz dago. Mitxelenak idatzi eban Josetxoren egillea gitxi ezagutua dala. Ori esanaz, nire ustez, zera esan nai eban: geiago ezagutu bear geunkela. Orixe berori diñot beste idazle bat, bizkaieraren lantzaille bat aitatzerakoan: Iñaki Zubiri. Gipuzkoarako jokerea erakutsi eban lenengo idatzi eban *Oroitzak* izeneko liburuan. Baiña orain Bizkaierako jokerea artuta dabilkigu. Bizkaierazkoa dau gure literaturan lenengo eredu den elebarria: *Galdu* deritxo. Jaberik jabe ibilli dan erbitxakur batek elebarri onetan bere bizitzako zoritxarrak eta pozaldiak eralten deuskuz. Ipuin eta kontakizun asmatzaille azkarra dogu Iñaki Zubiri idazlea.

Bizkaierazko nobelagintzea ez dago lo, ez dago illik. Bizi da oraindiño eta biziko al da aurrerantzean be. Gure elebarrigintzeari asierea eta lenengo bultzadea emon eutsan euskalkiari, Euskalerrriak Euskalerrri iraungo badau, ez deutso baztertzen eta galtzen itxi bear. Asmo onekin zoro-moro dabilzan askok ez dabe zer au aitzu bear: euskera batua dalakoaren bultzatzaille eta maisu nagusitzat dagoanak berak be ez ebala nai euskera ori literatura sortzaillea dalakoan sartzerik. Euskera bizia da beñena. Guztio egin bear geunkena da geurea dogun euskalkiaz gañera, besteena dan bat ikasten alegindu. Ori egin dabe Bizkaiko idazle askok eta eztago eskubiderik bizkaitarrak beste euskalkietarako edegiak eta zabalak izate ori. Bizkaikoer aurka artu ta biurtzeko. Eztago eskubiderik iñori, laguntzeko besoa eskiñi deuskula-ta, burua eta dana eskatzeko. Bizkaierari bizia ukatzea, illik ikusi nai, eta orretara ale-

gintzea, erderearen indargarri baiño ez da iango. Euske-
rearenak Bizkaian egingo ezpadau, bizkaereari lagundu ta
eutsi egin bear jako. Euskerea bizi, euskalkietan bizi da,
eta euskera bizirik ez dogu baztertu bear, ez dogu il bear.
Guztiok gagoz alkarren bearrean. Lagundu deiogun alka-
rri. izan daigun besteakanako begirune eta lotsa geiago,
Peru Abarkako irurak, *Peruk*, *Txorgorik* eta *Joanisek*

euken lez. Bizkaiko elebarrigille eta idazle askok erakutsi
daben lez.

Olantxe eutsiko deusagu euskereari bizirik irauten.
Ala baten batzuk azpitik edo agirian, jakiñean edo ezjaki-
ñean, gure izkuntzaren eriotzea nai ete dabe?

L Akesolo

LIBURUAK

Alboan agertzen diran zerrendako
liburuak salgai dira «**EUSKERA-
ZALEAK**» 'en idazkaritzan.

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º
Teléfono 423 53 22
B I L B A O - 1

Los libros al lado indicados pue-
den adquirirlos en las oficinas de
«**EUSKERAZALEAK**».

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º
Teléfono 423 53 22
B I L B A O - 1

| | | |
|---|-----|----------|
| Nora Zoaz | 150 | laurleko |
| 40 fichas Nora Zoaz | 50 | » |
| Giza Soiña | 150 | » |
| Iniciación al Eus- kera | 100 | » |
| Irakurgai errez- politak I (Zenbat Urte) | 75 | » |
| Irakurgai errez- politak II (David Copperfield) | 75 | » |
| Aurtxoia II | 50 | » |
| Eginkizunak I | 50 | |
| » II | | » |
| » III | | » |
| Euskal Irakasbide Laburra (Gramática X. Peña) | 150 | » |
| Euskal Irakasbide Laburra, 3 kaseta (Gramática X. Peña) | 800 | |
| Diccionario Ikas | 200 | » |

GALARTZA AUZOAN (2)

LUR ABERATZAK, BAIÑA LANA UGARI EGINDA

Galartzako lur aldeak, dan-danak EGOI aldera begira dagoz. MURUGAIN azpian, Murugaingo aldapetan: Egiliorretik-Etxezuriraño, ta Ametzatik-Kukuzuloraño bitartean danak.

Zelan ura ugari jausten dan zerutik ta jentea langillea dan, ango lurrak EMANKORRAK dira.

Ango jentea lanean amorratua da, Lanerako bakarrik jaiokoak ba' lira lez. Orduan derrigor, lurrak ondo emon bear. Orretarako, lurrei ONGARRI onenak ta Berezkoak botaten dautzez.

Lenago bilduten ziran: GARIA etxe bakoitzean 60'tik 100'ra anega inguru.

ARTOA apur bat gitxiago, indabak ugari, arto artean, etxerako baiño askoz geiago ala ta be urte batzuetan, artaberdea, arbia ta abar.

Mota guztietako IGALEAK: Sagarrak, makatzak, edo madariak, okaranak, goiz-geriza ederrak, mizpirak eta abar. Mallukiak be bai.

Barazkiak be etxerako baiño geiago, ta gure amatxok eroaten ebezan Arrasatera ta diru eskukua ugari etxera, guretzako jazkiak egiteko.

Orduei begiratu barik egiten zan lana, ta ezegoan goserik etxeetan.

Baserriko ogia etxe bakoitzean egiten zan ta ganera ederra ta ugaria, onegaz ta arto opillaz mutiko sendoak, garbiak ta indartsuak aziten ziran.

Lana ugari eginarren, gazteak ta zarrak be bai, ALAI, gogatsu, asean ta betean bizi ziran, gauza danei arpegi irribarrezka emonda.

Aldapa aretako bideak ez ziran gaurko lakoak, lupetzez beterik egoten ziran neguan baiña jentea pozik bizi zan bertan.

ORAIN LAN ERREZAGOAK

Oraingo bizi-modua asko aldatu da basetxe aretan.

Ez da egiten lenagoko "asto lanik", basetxetan.

Ez da biltzen lenago beste gari, arto, indaba... Solo geienak bedar biurtu dira aberentzako, ta abere geiago daukie etxe guztietan.

Orain jentea esnera ta okelara zuzentzen da.

Onelan diru edo txintxin geiago ta eskukua eukiten dabe baserritarrak.

Ganera an inguruan zelan dagon FAGOR ALKARTEA, gazteak an lana egiten dabe etxeko ta soloko lana.

Oraingo baserritarrak txintxin ugariago ta eskuan darabille.

Ez dago euren artean lenagoko laburkeri edo urritasunik.

BASETXE EDERRAK

Txintxiñak dana edo geiena antolatuten dabe ludi onetan.

Orregaitik esaten dautsoe, ludi onetako jainkoa.

Lengo etxe zar asko, guztiz aldatuta dagoz.

Etxe geienak kalekoak baiño obetoago ikusten dira. Zelaitik edo kanpotik dana ondo margotuta agiri dira. Lenagoko leio txikiak kendu ziran ta oraingoak aundiagoak ta zabalagoak dira eguzkia ta argia lasai sartu daitezcan.

Aize garbia ta argia ugaritasunean sartzen yakie; ez dira espetxe antzeko leotzak (mazmorra).

Etxe barruak be zalaien antzera dagoz. Eskarata, baserriko artzaillea dalako, geienetan ondoen apaindua izaten da: luzea ta zabala. Oraingo tresna guztietakoak daukez; erdian mai ederra ta onen inguruan aurki sendoak ta erosoak.

Logelak ugari ta naisaiak, leio zabalekin. Karkaba be ur biziak ta garbi-ontzi edarrekin.

Gaztelera aldiian ikusi dodaz olako etxeak aintxinetxo, baiña arek jauntxoan batenak ziran, baiña besteak eziran olakoak ta ayetan notin garbi, txirazko ta onezko ezin leikien sartu.

JAINGOZKO JENTEA

Gure Jaunak Bere adei ederrak ta ugariak, nai daben bezela, jaurren dauz lurrerantz; ta edonun ta edonoiz.

Baiña geienetan ondo landuta dagozan tokietan ugariago.

Galartzako lurrak, ontako aldeak dira.

Zelan ez eban botako ba, olako jente langille, sinisdun ta euren eginbideak oso ondo betetan dagozanari?

Andik, ogei urte inguruan urten eben 17 notin sagaratuak abade, lekai, ta lekaimeak.

Adei orreri erantzun eutselako, orain Bere serbitzailleak dira Bere mezua edo mandatua zabaltzen lurralde guztietan.

Denbora asko ez dala esaten eustan lagun batek:

Egongo ete da olango erritxo bat, ainbeste notin sagaratu daukazana Euskerrian ta ludi guztian ere.

Gatxa izango litzate uste dot.

Lenago ZEANURI'n izaten zan abade ta erlijo-zaletasuna. Ete dago orrenbeste?

Olako jentea, ala ta be, lenagokoa, praka, gona, oski ta zapi zarrekin zuzen zerura sartuko dirala.

Ez noa esaten SINIST-AUSTERIK edo lotza-gaberik, aiek sartzen ez ba' dira nortzuk sartuko ete dira ba?

GALARTZAKO ETXE, ENTZULEAK

GALARTZAKO TORRE-ETXEA: Eliza ondoan dago etxe bat oso ondo ta gogor eginda dagona. Bederatzigarren edo amargarren MENDEAN egindakoaren itxura dauko. Bere lau orma nagusiak neurkin bat eta erdi daukie zabalera. Tontor baten ganean eginda dago etxe oneri esaten dautzoe: Galartzako torre-etxea.

Gordeleku ederra izango zan lenagoko gudetan.

Oñauko gudcan bertan egon zan, sei illebetan aurreko taldea.

Jaurti eutsuezan aibeste amabosteko kaiñoaren tiroin baiña ez eutsoen egin ezaugarririk.

Etxe orretan bat da geiago, zelaitik datozen eun baiño, an dagona lasai egon leiteke ta, ala ta be aintxineko gudetan.

MURUBE: Murugain azpian, obeto esateko, Murugain oin-oiñetan dago oraindik etxe zar bat, jausten. Nire gomuta guztian ez da bizi iñor bertan.

Ango EDESTIA apur bat dakianak diñaust, MURUBEN zezen ezaupidea etxe zar orretatik datorrela.

Ortik aldentutako jentea joan zala egoi aldera, ta an abereak gorde ta egin dirutxuak ta asi zala MURUBEN EZAUGARRI AU goratzen.

Ez da lenengokoa, euskal aldetik joan ta egoi aldean ondo bizi izan eta ABIZENA goi-goian ipiñi danan jauna.

ZILAUAREN: Galartza auzo barruan sartaldera, dagoz IRU ETXE, ta iru etxe aieri esaten dautsee: ZILAUAREN.

Etxe bakoitzaren izenak oneik dira: Errartena, Irkizuenta ta Peruena edo Kukuzulo, au gaitz-izena.

Orain ez da agertzen etxe pillo orretan olango ABIZENIK.

Ez dago idazki garbirik oneri buruz:

Orain lau edo gizaldietan, jaun entzute aundikoa izan zala. Sasoi orretako jentek ez aban itziten ZIGILU edo markarik ta orregaitik, ez dago, argi nortzuk ta zertan ari ziran.

ETXEBERRIA'TA ISIDOR

GURE ERRIAREN KUTSUA

EUZKADI'N DROGAZALEAK

Guztiok dogu jaiolekua,
guk geure Euskal Erria.
Danok zintzoki maitatzen dabe
eurena dan Aberria.
Geuk be geurea maitatzen dogu
ta jaku maitagarria,
naiz eta drogak ta eriotzak
ein dabe lotsagarria.

Drogak dirala, gogor ein dabe
Euskalerriko Gotzaiñak.
Amaika milla doguz Euzkadi'n,
len eder, gaur ondakiñak.
Negar damosku au ikusteak:
itxura barik, liraiñak,
buruz biotzez dana galdurik:
dirudie gorputzkiñak.


Gaurko gaztea ikusten dogu,
sardiña lez erretua.
Jakiñezean probatu eban,
lagunak zirikatua.
Zoragarria, iñotzen zala,
au da: lurra zerutua.
Laster asi zan konturatzen:
-Izan naz atzipetua.

Griña txar au da oker andia,
gaur Euzkadi'n okerrrena.
Orreik galduten dabez gazteak;
droga da, ziur, edena,
buru-biotzen ondatzalea,
beti kaltegarriena.
Len Euzkadi'n zan "paradisua",
gaur, bear bada, txarrena.

Badabiltz gogor drogaren aurka.
Nork egarria makaldu?
Nork emoten dau ilten dauan au?
Nork eden ori zabaldu?
Ete dakie, neska mutillak
eiten dabezela galdu?
Bai, baiña, auxe dabe asmoa:
NEGOZIOA goraldtu.

ARGINTXONA.

EUSKALDUNEK IKURRA



ZERTARAKO?

- Paparrean eroan
- Nor euskalduna dan jakin
- Eta euskeraz egiteko

Salgai:

EUSKERAZALEAK'en
Colón de Larreategi, 14, 2.ª eskoia

Urte
Zoriontsua
1985
Feliz Año

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

CAJA DE AHORROS
VIZCAINA

URTE BARRI

Aspaldi danetik bake-billa gabiltz. Urte bakoitzaren asieran gure biotzak, baietzkortasunez beterik, ziur dagoz, urte ori amaitu orduko bakea guban izango dogula ta bardin gure erri maitean; baiña urtea azkenera eltzean gure ametsak aizeak daroaz bakerik agiri ez dalako.

Baiña ori orrelan izanik be gure itxaropenak ez dauka amairik eta urte barri bat etortean gure itxaropen, uste on eta baikortasun guztiak urte barri orretan ipinten doguz.

Joan dan urtean gure itxaropena aundiagoa zan demokrazian gengoalata ta askenez gure bakea elduko zala usterik, baiña bai zera. Madril aldetik gure esku-biderik ez dabe ontzat artzen eta beste aldetik gure erriko batzuk, odol beroagaz etsita lez, bide gorrak artu ditue euskal erriko eskubideak lortzeko.

* * *

Aurtengo urte onetan zer jasoko ete da? Elduko da bake zoragorri ori?

Ni beintzat itxaropenez beterik nago.

Zer egin bear ete dogu bakearen bideak samurtu ta erreztuteko? Kristau gareala uste dogunok beintzat otoi ta lan egin bear dogu.

Otoi, Jaunak Madril-aldekoak argitu dagizan gure eskubideak ontzat artu dagiezan bein betiko, eta gureak kristau zentzunagaz beterik burruka erriaren alde egin dagiela baiña gogorkeririk baga eta odolik barik.

Batez bere gure otoiak euskalerriko semeak izan eta euren erria saltzen dabenakaitik, orreik diralako kaltegarrienak euren erriarentzat.

Danok alkartu bearrean gagoz alkarturik euskal erriaren arerioak ezingo dabelako irabazi.

Zenbat eta urte geiago bizi ta ainbat eta argiago ikusten da benetako kristau barrualde-kontzientzia dala benetako bakea gizonen artera ekarriko dauana.

Ekin dagigun ba ta lotsakuntza barik ekin be, guban eta gure inguruan sinistetun barru alde ori osotuten. Ori baga gorrotoak, berekikotasunak etab eta abarrek gizona menpetuten dabe.

Eskuetan dogun urte au izango ete da bake urte?

Urte onen amaieran gorrotoaren ta gogorkeriaren garaille urtengo ete dogu?

Lan dagigun danok urte zarrari agur egiñik, lan dagigun eta geure aldetik al doguna egin dagigun.

AGUR GABONZAR AGUR
ZUREAK EGIN DAU

ATE JOKA DAUKAGU
URTE BARRI BAT GAUR

ZOAZ MUNDU ONTATIK
SEKULA SANTUAN
IGARTU ZARA GUZTIZ
UTS DOZU BARRUAN

AINBAT POZ ETA NEKE
ZURE SABELEAN
IZAN DITUGU DANOK
GURE BIOTZEAN

ORAIN URTE BETE DA
GURE ITXAROPEN
ZUGAN IPINI GENDUN
BARRUA IRAKITEN

URTEA JOATEAN
NAI GENDUN GEIEN BAT
EZ DOGULAKO LORTU
NAI DOGU BESTE BAT

ZOAZ EZER EZERA
ZOAZ URTE ZARRA
PEKATU ASKOREKIN
GALDUA BAIT ZARA

BETOR URTE BARRIA
GAZTE TA GURIA
BERAGAZ BAT ETOR BEI
BAKE UGARIA

GALLAZTEGI'TAR KAULDI

ZER

ALDIZKARIA

- ILLEROKOA (MENSUAL)
- BIZKAIERAZ IDATZIA (EN BIZKAINO)
- ERRI-JAKINTZAREN GAIK (MATERIAS POPULARES)
- IRAKURGAI ERREZ-ERREZAK (LECTURA FACIL)
- ARAZO SAKONAK AZTERTUTA (ANALISIS DE TEMAS)

ARPIDETU ZAITE!

ZER
EUSKERAZALEAK

Colón de Larreátegui, 14-2.º - BILBAO-1

KIWI LANDAREA

Kiwi izeneko ortuaria, jakitunen eritziz, barazkirik onenetarikoa dogu. Txina'ko lurraldeetatik ekarria.

Orain berrogei urte Zelanda Barrian sartu eben lurrean eta irabazirik ederrenak emon dauz an. Ainbat urte dira España Laterrira eldu zala be: Galizia'ko lurretan sartu eben baiña irabazpidea Balentzia'tarrai eskiñi eutsen, irabaziak erdibana izatekotan.

Amarren bat urte dira Euzkadi'ra eldu zala eta baserrien etxe-inguruetan toki egokiak aurkitu ebazan eta bertan gertatu zan salerosketarako ikertzea be. Asi dira kiwi-aziak gure artean irabazi onuratsuak emoten be.

Igali au garetia da eta zio bigaitik izan be: Bere azia ez dalako merkea eta lur aukeratuak bear dauzalako. Lurrak ezoak izan bear dau edo lur-buztitze bereziak egin bear jakoz eta lurrak euneko 18 buztiña izan bear dau, baiña ura gelditu ez daiten lur ariña bear dau. Ori ta guzti be, lur-gertakera eta zimauro botate arruntak onartzen dauz. Egurandiari buruz, lañotsua da egokiena bera jaiotze ta indarbarritu daiten.

Bizkai-aldean, eta Gernikan geienak, amar milla landara dagoz, ogei ta amar ektarea lurretan. Agiriak diñoskue-nez, ez da asko, baiña asteko ez dago txarto be.

Landara-arteko bitartea bost neurki lautukoa da egokiena. Kiwi'k landaratzeko kurutz-itxurako age edo tantaia bear dau eta adarrak burdin-ariz lotzen dira. Dauken goibea 1'80 neurkikoa da eta euren erabilkerea oso erreza izaten da.

Asiera baten eraketak aundi-samarrak dira, baiña irabazpideak ez dira atzean geratuko, salerosketarako atzerriko bideak agerpide barriakaz ondo gertatzen ba'dira. Europa'ko azokara sartzea be onetan lagungarri izango litzake.

Eralgiak erktareako milloi bi pezetaraiño eldu daitekez, lur-gertatzea, eskuzko naiz tresnazko lanak, bear diran bustialdiak eta olakoak kontuan dirala.

Landara bakoitzak zazpireun edo zortzireun lauerleko edo pezeta balio ei dau eta kilo bakoitxean 12 edo 13 igale sartzen (Ez dauskue esan landare bakoitzak zenbat igali emoten dauzan).

Ziur dakiguna au da: Igale bakoitxaren balioa 75 pezetatik 125 pezetarakoa dala, saltokiak eta igaliaren neurriak kontuan dirala.

Kiwi zugatz-ondo onek 35 urteko bizi a dau, geienez, jakitunen eritziz.

Txiña lurraldera barriro bihurtuz, an jatorriz lau mota kiwi dagoz eta onena neozelandatarrak egin dabezan azterketari jarraituz, HAYWAR izenekoia ei da, naiz iraupenerako, naiz erbesteratzeke.

BEREIZTASUNAK

Kiwi igaliak azillean batzen dira, neguko lei gogorrek kalte egin aurrean, baiña udabarriko lei ta izotzak kaltegarriagoak jakez.

Orregaitik, landaratzea orrillean egiten da.

Arnari au ezaguna ez dan ezkerro, lenengo ikasten danean arritzekoa da: Uleduna, gaztaiña-margozkoa, azaletik bakana. Baiña barrutik mamin orlegia dauka eta garauak baltzeranak... Jatunentzat tentabide dira eta jatetxeetan ugari erabilten dira. Aomenez gozokitsua da eta alikaturari buruz goi-maillan jarri geinke. C bitaminetan limoiak baiño sei bider geiago daukaz eta proteinak eta meatz-gaiak ugari.

Eta artzeko, igali lez gozokien antzera eta yogurretan erabilten dira; janari-laguntzaille lez, eta saltsetan be sartzen dira.

Orregaitik euskal nekazariak Derio'n egin dabe batzarra oraintsu Aldundiaren basetxean eta gai berezia auxe izan da: Kiwi zugatz-ondoa eta bere igaleak, Europa-Erdirantza saltzeko. Izan leikezan irabaziak eta onurak.

ARREGI'TAR JOSU'k

BATZARREAN (Bizkaia'n)

Bizkaï'ko Eleizea, gotzain, abade ta laiko, guztiak batera, batzar giroan dagoz aspaldian. Gai ori dala'ta, barriak jakiteko eta egokiro agertzeko gurariaz ZER aldizkariko Idazkolakoak Batzorde Eratzaillean kideko dan Olazar'tar Martin'egana urreratu gara alkar-izketaren bidez jakingarriak artzeko.

ZER.—Kaixo, Martin! Bizkaï'ko Eleiz-Batzarra eratzzen diarduzuela jakin dogu eta zuri itaun batzuk egitea bururatu jaku, ZER gure aldizkariak dauzan irakurleak Eleizako jazokizun onen barriak iturri garbitik jakin dagiezan. Gertu zagoz erantzuteko.

M. O.—Bai orixe! Eleizako arazoak be jakingarriak doguz gure errian eta ZER aldizkariaren irakurlerik geienak be Eleiz-Batzarra nondik nora doan jakin gura izango dabela uste dot.

ZER.—Nondik sortu zan batzar ori egiteko asmoa?

M. O.—Lenengo asmoa Abaderen batzukandik sortu zan antza, eta abadeen batzarra egiteko izan zan, baiña asmo orrek ez eban izan indarrik aurrera egiteko eta isilean geratu zan.

ZER.—Baiña orain aurrera doal

M. O.—Bai ta ez. Abadeen batzarra egiteko asmoak ez dau aurrerarik egin, baiña orain egiteko dan batzarra ez da abadeena, sinistedun edo fededun guztiena baiño.

ZER.—Eta nondik agertu zan ba sinistedun guztien batzarra egiteko asmoa?

M. O.—Au Eleizearen oiñarritik etorria da, baiña Abadeen Kontzeilluan aurkeztu zanean, guztiak batera onartu eben. Orregaitik gure eleiz-batzarra sinistedun guztiena izango da.

ZER.—Baiña zelan egin leike sinistedunen batzar osoa, sinistedun guztien batzarra? Nortzuk alkartu? Non? Eziña dirudi.

M. O.—Batzarraren lanik garrantzitsuenak parroketan diran taldeetan, talde txikietan egingo dira. Olako taldeetan sartuta dagozenak millak dira, gazteak bakarrik amabost milla.

ZER.—Eta zu, Batzorde eratzaillean sartuta zagoz. Zein da zuen zeregiña?

M. O.—Ille batzuk dirala, taldeetan eta eleizetan eritxiak batuta, amaika gai aukeratu ziran. Guk gai orreitarako agiriak edo txostenak gertatu bear doguz, taldeak

lanerako adoretu, laguntzak emon... Orretarako ogei ta amabost gara batzordekideak, Gutzain biak barru dirala. Trebe lez Patxi Ituarte ta Jose Angel Ubieta'k egiten dabe lan aundia.

ZER.—Agiriak eta barri-emoteak Bizkaï guztian zabaldu bear diran ezkerro, zelan bideratu dozue izkuntza-ren arazoa?

M. O.—Bakoitxak nai dauan eran egiten dau berba batzarretan. Geienak erdeldunak diran ezkerro, erderaz, baiña nai dabenak euskeraz be bai, eta erderatzailea izaten da batzarretan. Agiriak guztiak euskera ta erdera argitaratzen dira, eleiztarrak alan eskatuta, Bizkaï'ko euskeraz eta idazkerea aske dala. Elezikunetan izkuntza biak erabiltzen dira, eta ez gitxi euskerea.

ZER.—Baiña or ez da agiri Batzar Nagusirik...!

M. O.—Ez. Gertakizun aldi gagoz eta aldi au luzea izango da, baiña azkenean Bilbo'ko toki aundi baten Batzar aundia be egingo da. Edozelan be ez uste izan gertatze-aldi au garrantzi-bakoa danik. Ez, ementxe egosten da Batzar Nagusiaren lana dana. Azkeneko batzar nagusia ez da egindakoaren agerpena ta sendotzea baiño asko geiago.

ZER.—Eta zintzuk dira ezarri diran elburuak?

M. O.—Bizkaï'ko Eleizea eguneratzea eta Batikano'ko II Eleiz-Batzar Nagusiak ain egokiro ezarri ebazan bideetara oso-osoan sartzea izan leiteke elburua, eta orretarako gure eleiz-giroa alkarte-giro biurtzea. Sarritan gure Eleizeak ez dauko ebanjelioaren irakatsietatik ateratan da itxurarik eta ori, arazo ori, bideratu egin bear da.

ZER.—Esan zeinkez labur zeintzuk izan ziran erriak aukeratutako amaika gaiak?

M. O.—Labur esango dodaz, baiña zabalago irakurri nai dauzanak, parroketan daukoz agiriak, bizkaieraz idatzia: 1. Gazteak. 2. Sendia (familia). 3. Bizitza guztiko katekesia. 4. Txiroak eta alboratuak. 5. Gogorkeria. 6. Irakaskintza. 7. Artzain-lan-giroak. 8. Alkarte txikiak. 9. Otoitza. 10. Eleizkideak arduradun. 11. Jakintza-balioak eta fedea.

ZER.—Itxaropenik ba-daukazu? Onuratsua izango da Batzar Ori?

M. O.—Itxaropena bai. Ez larregi. Ez gitxiagi.

NESKA ABERATSA POBREEN LAGUNA

*Neska gazte bat, alaba bakar,
oso aberats bizi zan.
Poztasun bape ez eukan berak,
nai ta diruak eukazan.
Zorionarik diru larregik
ari emoten ez eutzan.
Olan zalarik, bere egunak,
larri ta larri yoyazan.*

*Aita eta amak osagillea
ekarri eben etxera.
Osagilleak, ondo begituz,
ezagutu eban bera.
Diru lar eukan, zeregiñik ez,
olan egoan minbera.
Eskatu eutson joan etela
beragaz pobreen etxera.*

*Laguntzen eutson medikuari
gaiso pobrek ikustera.
Maite ebazan, maitatua zan
ara yoiari berba eltera,
eta baita be, eskupekoak,
diruetan emotera.
Ta lortu eban, igarri barik,
alaitu bizikerea.*

*Ez eukan pozik; etorri yakon,
orain baukan zoriona.
Kristorengandik ikasi eban
pobreen alde diñona:
Zoriontsua pobre danari,
maitez, laguntzen deutsonal
Emen daukazu, lagun maitea,
pozerako bide ona.*

ARGINTXONA

NESKA POLITA, EZ ARROTU

Gure bizitza errukarria
lurrean amaituko da.
Etzaitzez gortu, ez eta itxutu,
ez euki arrokeria.

Makurtu zaitzez, apaldu zaitzez,
eriotz aurrean: ixill!
Gauza gogor ta bildurgarria:
bear dogula danak il.

Arroa danak ikus gorpua.
Au baida naskagarria!
Zelan arrotu? Nor zara, ba, zu?
Galdu dozu errazoia?

Edonun arrak agiri dira,
aragia da ustela.
Esan daikegu gauz olakorik,
iñun-iñun be ez dela.

Neska gangarrik ondiño badau,
au ikusten datorrela.
Siñistu ondo: zure gorpua
egongo dala orrela.

Danak ez dira sentzunbakoak,
bestek badakit direla,
sentzun aundiko ta kristau onak,
ta geiago daitezela!

Poztu gaitezen. Ondo dakigu
eder biztuko gara.
Au gure poza! Zorion betez
biztuko gara... Bestela!

ARGINTXONA

EUSKERA

Euskerea galtzen da
dakinak ez eñaz;
ez, barriz, ez dakinak
nai ez ikasteaz.

Euskaldun gurasoak,
geure euskerea,
ez irakatsi umei?
Au santarkerea!

Kontzientzia bako
ori eiten dauna.
Aberrri kontzientzi,
esan nai dotana.

Euskaldun gurasoak
ta jakin euskeraz?
Ez dozu meritua,
bai, zeuk ikasteaz.

Guraso erdeldunak
ta umeak euskaldun?
Bai ederra! Au ez da
ikusten edonun.

Noz itxartuko zara,
euskaldun lotia?
Negargarri da, gero,
diñotan guztia.

Garaikoetxeak diño:
Euskera gaiso da.
Asko egin bearko
osatuko bada.

Danak lan egin daigun,
bakoitzak al daun lez,
Lan egin gure dozu?
Iñork ez esan: EZ.

ARGINTXONA

BERTSO TXATALAK

1. DANAK IL BEAR

Aita Santu ilten da,
baita erregea.
Au dogu danentzako
Jaunaren legea.

2. GUZURRAREN TESTIGU

Guzurra esateko,
izarrak testigu.
Ez dautse itanduko
ta seguru gauz gu.

3. BIZTUKO GARA

Ilezkorrak izango
gara gero, beti.
Guri poza emoten
daukuna da ori.

Il eta gero biztu,
au gure poza!
Gorputz eta arimak
goian beti goza!

4. GURE BIZITZA

Jakin gure dozue
gure bizitza zer den?
Gaba txar neketsu bat
ostatu txar baten.

5. ZERUA ITXARON

Zeruagan siñistu
ta bera itxerain?
Ezin geinke benetan
euki emen samin.

6. AMERIKAN DIRUA?

Amerikarik ez dau
lana egin ezik.
Berton dozu dirua
lan egiñaz pozik.

7. LANA TA OSASUNA

Lana ta osasuna
dirua damona.
Gauza oneik eukita,
emen dozu dana.

8. DIRU BILLA

Patxiko diru billa
kanpora yoaku.
Dirua aldian, ta,
entzun baleu: KUKU!

9. EUSKERA, ZELAN GALDU?

Euskera ez da galtzen
ez ikasteagaz.
Galtzen da dakianak
ez egiteagaz.

10. BIZITZA ESKUTUA

Ez nabil munduko gauz
arduratsu billatzen.
Goizean Jaungoikoari
dautson beti eskatzen:
Etxe garbi bizitzeko,
ogi biguna jateko,
liburu on bat leitzeko
ta Kristo errezatzeke.

(PEMAN-Argintxona)

OROIGARRI!

Iñor badago gizon agurgarririk au da benetan Julián Ganboa. Bizkai erriko Fika'n bere baserrian bizi da. Ez bizi bakarrik baita bear asko egin eta etxekoentzat onuratsu izan be.

Egunero goizeko seiretan jagiten da, bedarra ebagi, abereai emon janaria ta baserriko eginkizun arazoak erabili, orra or eguneroko, iraunkor Ganboa'tar Julen'en zeregiñak, bere 74 urte lepoan. Alan be, guzti ori ez zan bakantasan andirik izango eusko baserriar batentzat adin orretan be gure Ganboa ona itsua ezpalitz.

1937'ko jorrailla'ren 20'an su-izkillu bonba batek begien argia betiko kendu eutsen. Eta ezautzen dautsenai arrituten yakezanak dira aren bear egiteko gogo, bizkortasuna, bizitzea artu ta ikusteko erea, 27 urtegez itsutu zanetik.

* * *

Eguneroko bizimodua eratuten daki Julian'ek bere Fika'ko baserrian. Bere zaletasan leia bear egitea da.

Zeregiñak damotso biziteko liluraldi begitasuna. Orain 47 urte dira inguruetako argia ta ikustea osoan galdu ebanetik, baiña jazoera negargarri onek ez dautso galerazoten guda aurrezko bere lur-zelai-baso -abere zeregiñak egiterik. Eten bako barritsu, langille gogor soloetan, bere gaztetako urteetako lango lanerako garraz jarraiten dabil.

Ez dau erabili iñoz orain esaten yakoen motosierra ta tratore tramankulurik, bizita guztiko antxiñakoen tresnak baiño.

Bere esku-makil itzi-eziñaz ibilli dabil basota mendietatik zear.

“Ez naz iñoz galduten, alderdi oneik ondo ezautzen dodaz, emen azi naz-ta. Orko goiko baserrian jaiο nin-tzan” diño bere lengo bizitokiaren alde eskuaz erakutsiz.

Entzun egizue Julen ikusmenbakoak egiten dauan beste gauza arrigarri bat.

Itsua batek etxerako abereak erosi leiz? Ba Julian'ek auxe egiten dau. Zelan? Ikutuz, tentuz, esku-antzez erosten ditu baserriko beiak. Eskua darabil aberearen soin alde guztietan uts akats baten bat eta daukon jakiteko.

Neurriak ainbatu bat az beste josten ditu besartekadaz, eta ez da iñoz oker egon. Bere aolku burubideak arlo onetan ondo artuak izaten dabez auzokoak, edozein gora-bera buru-austetan beragana zalantza barik datozanak. “Badaki okelarako salduten diran abereen astuntasuna be” diñosku alabeak.

Fikán bere etxeko ataurrean lagun arteko barriketak jarraitzen dira. Zetaz? Jakiña Eurok esku artean darabillean gaiaz: abereak, uzta, gari artoak, biaramonean egingo dauan eguraldia. Ez jako atsegin ardu-paitar dsangadak edandegietan egiten. Edazale ezta izan; jan bai, jaten dau ipinten jakona, ta ondiño ez dau ezer itxi maian imiñi jakonik.



Beragaz bizi diran billobak entzuten dabez sarritan aitataren aotik edesti jasorikoak. Beste aldi bateko oroimen maitatsuak; itxaso, gudagerretako zeregin gogorrak; 74 urteak burura dakartsoezan kontu kontariak.

* * *

Legorreko gizona izan arren, gure Julen'eri itxasoa atsegin jako. Pozarren itxasoz egin ebazan ibillaldiak gogoratzen ditu. “Gitxi-gora-bera 17 urte neukazala, Arjentina'ra lenengo itxasaldia egin neban garia an artu ta Genova'ra eroateko. Gero Ingalandera ikatza andik Tunez'ea ekarteko, orduan uri au Prantzesena izan zanean”. Baiña, Julen, gudaria be izan ziñan. Bai ta izan be gudari ona, adoretsua. Martiartu guda-talde, batallikoa. 1937'ko jorrailla'ren 20'gn. Elgeta'n egoala beste amar lagunekin su-izkillu jaurtikai batek taldea sakabanatu egin eban. Bat il zan, Julian'ek ikusmen osoa galdu, besteak zaurituak.

Bat baiño ez zan geratu osorik, kalterik artu barik.

Julen toki askotara eldu zan, ta azkenean Prantzira. Emen zazpi illabete igarota, etxean andrea eukala seme-alaba txikiakaz gogoratu zan ta etorri al bait ariñen eurokana”. “Etxera aita aldu zanean, alai ta posez artu eban arloa sendi-familiaen alde bear egiteko”. “Ori bai dauka nire aitak-diño samurkiro alabeak- gogaldi on bat ta umore eder-ederra ta aretxa lango osasun sendoa”. Alaba onek esanten deusku zelan eurak txikiak ziranean ta bera (aita) itxua izan arren eskolara bialduten ebazan, gosaria eurentzako egin ta emonda gero, ta ez ogitartekoak (boka-dilloak) taloesneko indartsua, baiño.

Oraintsu arte, andrea il jakon arte, Julian'ek berberak beiak eratsiten ebazan. Orain zeregin ori indar-lan da, mekanikariz egiten da.

Alan da be, goizeko seiretan jagiten jarraitzen dau lurreko lengo lanak goizetik asteko.

Gero, lenengoz gosaria ta ondoren eguerdirarte bearean. Bazkaldu, ibiltalditxu bat piñadi artean, atsedean kuluskada bat artu ta barrero gaberarte lanera...

Auxe da Julian Ganboa'ren bizikerea. Jaungoikoak olan gura dauala badaki eta esker onez eroapenez eta posez esaten dau: Jaunaren izena onetsia izan daitela.

EGILUZE'k

ERREGIAREN ALABEA!

Jon Otso'ren auzoan iru lapur bizi ziran eta, olako auzokizeak izanik sortu-bearrekoak ziran lez, gorabera aundien sortzen ziran euren artean: Jazokizun-billa joan zanekoa, txarria ostu eutsoeneakoa, lapurra Jon-Otso arripau ebekoa... Azkenengo au artuko dogu gau kontakizun lez.

Bai. Egun baten, edo, obeto esateko, gau baten lapurrak erabagi txar bat artu eben: Jon-Otso arripau, upel baten sartu eta itxasora bota bear ebela.

Esan eta egin. Iru lapurren artean artu eben Jon-Otso, bere eskuak lotu ondo eta upel baten sartu eben, upel ori menditik bera binbolon-banbalan itxasora bota eta orrelan arerioa begien aurretik kendu eta bere ondasunak errez esku-ratzeko.

Ba-joiazan iru lapurrak biderik bide upel ori eskuetan ebela eta Jon-Otso barruan asarre.

Errira sartu ziranean, edetetxe baten aurrean genditu ziran, izerdia ta beroa baretzekoa edatalditxu bat, txurrutadatu batzuk egiteko gurariaz.

Jon-Otso isilik geratu zan upel barruan, baiña lapurrak edatetxera sartu ziranean, deadar au egin eutsen bidez joiazanai: Upel onetara sartu gura dauana Erregiaren alabeagaz ezkonduko da!

* * *

Baten batek sinistu eutson. Al eban lez upel gaiñeko ol makobilla kendu, atera aldik Jon-Otso eta antxe sartu zan. Jon Otso ostera laster aldendu zan inguru aretatik.

Lapurrak edatalditxua amaitu ebenean, etorri ziran eta upela artu eta itxasorantza bideratu ziran. Barruan joiak zuzmo txarra artu eban eta zarataka asi zan, baiña lapurrak ez eutsoen jaramonik egiten Jon Otso zalako areri.

Eldu ziran arako baten muiño gaiñera eta euren asmoa zan lez, an bota eben upela eta barruan barrukoa bilinbolaka itxasora.

* * *

Andik egun batzutara Jon Otsok artetgia erosi eban eta artzain egoan muiño aren gaiñean eta. Alan bear-eta, anditek igaro ziran lapurrak. Arrituta geratu ziran, baiña maitekiro berba egin eutsoen:

—Jon-Otso! Itxasopean zagozela-ta gu eta zu emen! Zelan urten dozu ba!

—Zuei eskerra kemon-bearrean nago ni. An itxasopean artetgi izugarriak dagoz. Noizean bein itxaso-gaiñera be urteten dira barrutira lez. Oraintxe be an dabiltz (Eta olatu urratuen zuri-uneak erakutsi eutzezan). Baiña euren jan-aldia egin eta gero barru itxaspera joaten dira.

—Eta zuk ardi oneik andik atera dozuz?

—Bai. Eta oraindiño asko geiago dagoz an. Sinistu eziñeko artetgi ederrak, artzain barik eta lenengo arrapatzen dauzanarentzat.

—Eta gutzat be bai?

—Bai. Zoaze irurok eta nai dozuen beste ardi aterako dozuez.

Esan eta egin. Sartu ziran irurak iru upeletan eta an joan ziran binbolon-banbalan itxasopera, ardiak ekartueko itxaropenaz. Ardi asko aurkitu dabez antza dagoenez, ze oraindiño ardiak atera eziñik dabiltz eta ez dira andik kanpora agertu.

Ez da txikia Jon-Otsok egun aretatik aurrera bere etxe-inguruan dauan bakea!

OLAZAR'TAR MARTIN'ek

IPUINAK APAINTZEKO MARGOZKIEN SARIKETEAK

*"Euskerazaleak Alkartea"*k, euskaldunen artean apainketarako marrazkiak egiteko zaletasun aundirik ez dagoala ikusirik, margolarien edo lan onetarako zaleak diranen artean sariketea egitea asmau dau.

Euskerazaleak Alkartearen Etxean (Colón de Larreategi 14, 2.^a, eskoia) ikusi daikez marralariak argitaratu nai diran ipuiñak txorta baten. Ipuin oneik argitaratzeko liburuaren azala eta barruko apaingarriak marratuko dauzan ertilaria edo orretarako zaletasuna daukana billatzen da.

Marralariak berak asmau bearke dau marrazkien neurria, margoak, zenbakia ta dana, ipuin bakoitxarentzat bat, naiz bi, naiz iru izan dautekezala, neurria zelakoa dan.

OINARRI-ARAUAK

1. Marrazkiak, 1985'ko urterilaren 31'rako, EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean izan bearke dabe.
2. Marrazkiak izen ordeaz ezaugarrituko dira eta karta-azal baten barruan ekarri bearke da ezaugarri dan izen-orde ori eta benetako izena ta zuzenbidea.
3. Saria bat bakarra izango da, 100.000 pezetakoa.
4. Saridun marrazkiaren jabe EUSKERAZALEAK ALKARTEA geratuko da.
5. Ipuiñak euskal-girokoak diran ezkerro, marrazkiak be giro orretakoak izan bearke dabe.
6. Saria irabazteko gai dan lanik bat be agertu ezik, iñori emon barik geratuko da saria eta aurkeztu diran lanak jabeen esku geratuko dira.
7. Epai-Maiaren erabagia 1985'eko zezeillaren barruan agertuko da DEIA Izparringian eta ZER aldizkarian.

EUSKERAZALEAK

ZER

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1


Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoiari, itzaropena oztopoen gainetik jarrita,
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,
batez be, emoneko berba lez darioan
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.
Itxasoaren oldarra gelditzen,
gizonaren neurribako
alegiña:

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA

Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.